Astigarragako Udala

Idazkaritza ● Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Espediente zk.:	2023IKTZ0004
Azalpena:	Harreman osasuntsuak eta parekideak eraikitzeko, droga-mendekotasunari eta indarkeria matxistari begirako prebentziorako sentsibilizazio-, formakuntza- eta aholkularitza-zerbitzua

HARREMAN OSASUNTSUAK ETA PAREKIDEAK ERAIKITZEKO, DROGA-MENDEKOTASUNARI ETA INDARKERIA MATXISTARI BEGIRAKO PREBENTZIORAKO SENTSIBILIZAZIO-, FORMAKUNTZA- ETA AHOLKULARITZA ZERBITZUA, TRAMITAZIO ARRUNT ETA PROZEDURA IREKI BIDEZ, KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUA

I.- XEDEA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

1. KLAUSULA. KONTRATUAREN XEDEA ETA KALIFIKAZIOA

Kontratuaren xedea honako hau da: harreman osasuntsuak eta parekideak eraikitzeko, droga-mendekotasunari eta indarkeria matxistari begirako prebentziorako sentsibilizazio-, formakuntza- eta aholkularitza zerbitzua kontratatzea.

Kontratua bost loteetan banatzen da:

1. LOTEA: Sexu eta harreman afektibo osasuntsuen informazio- eta aholkularitza-zerbitzua, herritarrei zuzenduta (aurrerantzean "*herritarrentzako sexu eta harreman afektiboak*").
2. LOTEA: Indarkeria matxistarik gabeko gune segurua jai-giroan (aurrerantzean "*Karpa morea*").
3. LOTEA: Harreman osasuntsuak eta parekideak eraikitzeko sentsibilizazio-, formakuntza- eta aholkularitza-zerbitzua, hezkuntza komunitateari eta gainontzeko herriko eragileei zuzenduta (aurrerantzean "*harreman osasuntsuak eta parekideak*").
4. LOTEA: Ingurune digitalean jarrera eta harreman osasuntsu eta seguruak sustatzeko formakuntza-zerbitzua, hezkuntza komunitateari zuzenduta (aurrerantzean "*ingurune digitala*").
5. LOTEA: Kontsumo arduratsua sustatzeko eta droga-mendekotasuna prebenitzeko formakuntza-zerbitzua, ikasleei zuzenduta (aurrerantzean "*kontsumo arduratsua eta droga-mendekotasuna"*).

Kontratuari jarraian adierazitako Kodearen arabera kodifikatuta dago; kontratu publikoen Hiztegi komuna onesten duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2195/2002 zenbakidun Erregelamendua eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren kontratu publikoen prozedurei buruzko –CPVaren berrikuspenari dagokionez– 2004/17/Ce eta 2004/18/Ce Zuzentarauak aldatzen dituen Batzordearen 2007ko azaroaren 28ko 213/2008

zenbakidun Erregelamenduan jasotako Europako Kontseiluaren CPV sailkapenaren nomenklaturari dagokiona:

CPV kodea(k) 85312300-2 Orientazio eta aholkularitza zerbitzuak.

2. KLAUSULA.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Definitutako kontratuak zerbitzuen administrazio-kontratuaren kalifikazioa du, Sektore Publikoko eta administrazioko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean SPKL) 17. artikuluak ezartzen duenez, eta izaera administratiboa SPKLren 25. artikuluaren arabera.

Alderdiek esanbidez jarraitu beharko diote agiri honetan eta bere baldintza tekniko partikularretan ezarritakoari, eta, beraz, sinatu egin beharko dituzte, enpresa adjudikaziodunak adostasuna erakusteko. Agirietan aurreikusita ez dagoen guztirako, honako hauetan xedatuta dagoenak arautuko du kontratua:

1- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea; horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

2- 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, sektore publikoko kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena, eta 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena, Sektore Publikoko Kontratuen Legeari aurka egiten ez dioten guztian eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen xedapen indargabetzaileak ukitzen ez duen guztian.

3.- Administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira eta, horiek ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

3. KLAUSULA. INFORMAZIOA ETA KONTRATATZAILEAREN PROFILEAN SARTZEKO MODUA.

Lizitazio hau erregulazio harmonizatuari lotuta ez dagoenez, lizitazio-iragarkia Astigarragako Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da, Eusko Jaurlaritzaren kontratazio publikoaren plataforman.

SPKLaren 63. artikuluaren arabera, ondorio horietarako beharrezko dokumentazioaren bitartez kontratu-jarduerarako sarbide publikoa eta gardentasuna ziurtatzeko helburuz, ondoren adierazten den helbidearen bitartez egin daiteke Astigarragako Udalaren

kontratatzailearen profilerako sarbideko publikoa: http://www.astigarraga.eus/eu/kontratatzailearen-profila-

4. KLAUSULA. JAKINARAZPENAK.

Bitarteko elektronikoak erabiliko dira jakinarazpen eta komunikazioetarako, kontratatzailearen profilean argitaratuta zein lizitatzaileak emandako helbide elektronikora jakinarazpena bidalita, edo jakinarazpen elektronikoz udalaren egoitza elektronikoaren bidez (http://astigarraga.eus/eu/tramiteak)

5. KLAUSULA. KONTRATAZIO-ORGANOA

Sektore Publikoko Kontratuen Legean xedatutakoaren arabera, alkatea da kontratazio-organoa. Baina, gaur egun, Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordeak ditu, besteak beste, horrelako kontratuak onartzea eta esleitzea.

Kontratazio Mahaiak emango dio laguntza kontratazio-organoari, eta egoki iritzitako aholkularitza teknikoa izango du.

6. KLAUSULA. KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratazio-mahaia honela osatuta egongo da.

Lehendakaria: alkatea.
mahaikideak:
- udal idazkaria.
- udal kontuhartzailea.

Mahaiko idazkaria: idazkaritzako administraria.

Mahaiaren bileretara euskara eta hezkuntza teknikaria eta berdintasuna, elkarbizitza eta partehartze teknikaria bertaratuko dira, aholkulari gisa, eta hitza izango dute baina botorik ez.

II.- KONTRATUA

7. KLAUSULA. AURREIKUSITAKO BALIOA.

Kontratuaren aurreikusitako balioa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 101. artikuluan aurreikusitakoaren arabera ezarri dena, **133.968,00 €** da (BEZik gabe).

Hau da aplikatutako kalkulu-metodoa:

A.- lizitazio prezioa:

LOTE zkia.	orduko prezioa	ordu kopurua	Zenbatekoa
LOTE 1	70,00 € 35,00 €	216 - aurrez aurreko arreta 72 - online arreta	17.640,00 €
LOTE 2	70,00 €	70	4.900,00 €
LOTE 3	65,00 €	394	25.610,00 €
LOTE 4	65,00 €	90	5.850,00 €
LOTE 5	65,00 €	28	1.820,00 €

A = **55.820,00 €**

B.- Aurreikusitako kontratu-luzapenen zenbatekoa (BEZik gabe).

Urte bakoitzeko zenbatekoa:

LOTE zkia.	orduko prezioa	ordu kopurua	Zenbatekoa
LOTE 1	70,00 € 35,00 €	108 - aurrez aurreko arreta 36 - online arreta	8.820,00 €
LOTE 2	70,00 €	35	2.450,00 €
LOTE 3	65,00 €	197	12.805,00 €
LOTE 4	65,00 €	45	2.925,00 €
LOTE 5	65,00 €	14	910,00 €

B = 27.910,00 € x 2 = **55.820,00 €**

C. Aurreikusitako kontratu-aldaketen zenbatekoa (BEZik gabe):

C= (A+B) x 0,2 = **22.328,00 €**

8. KLAUSULA.- LIZITAZIO-AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratu honen modalitatearen arabera, ez da kontratuaren guztizko aurrekontua finkatzen, ezinezkoa baita lote batzuen zerbitzu-orduak ezin baitira aurrez zehaztu, beharren araberakoa baita. Beraz, honako arau hauek hartuko dira kontuan:

a.- 1. LOTEaren (*herritarrentzako sexu eta harreman afektiboak*) kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (luzapenik gabe) **21.344,40** € da (BEZa barne), honela banakatuta: **17.640,00 €** balio nominala eta 3.704,40 € balio erantsiaren gaineko zerga.

b.- 2. LOTEaren (*Karpa morea*) kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (luzapenik gabe) **4.900,00 €** da. Zerbitzu honek BEZa salbuetsita du.

c.- 3. LOTEaren (*harreman osasuntsuak eta parekideak*) guztizko aurrekontua ezin da finkatu, eta unitate prezio hau ezartzen da: **65 euro/orduko**.

Zerbitzu honetarako 197 ordu aurreikusten dira urtean, hau da, 12.805,00 € kontratuaren indarraldian (luzapenik gabe). Zerbitzu hau BEZ salbuetsita du.

d.- 4. LOTEaren (*ingurune digitala*) guztizko aurrekontua ezin da finkatu, eta unitate prezio hau ezartzen da: **65 euro/orduko**.

Zerbitzu honetarako 45 ordu aurreikusten dira urtean, hau da, 2.925,00 € kontratuaren indarraldian (luzapenik gabe). Zerbitzu hau BEZ salbuetsita du.

e.- 5. LOTEaren (*kontsumo arduratsua eta droga-mendekotasuna*) guztizko aurrekontua ezin da finkatu, eta unitate prezio hau ezartzen da: **65 euro/orduko**.

Zerbitzu honetarako 14 ordu aurreikusten dira urtean, hau da, 910,00 € kontratuaren indarraldian (luzapenik gabe). Zerbitzu hau BEZ salbuetsita du.

Aipatutako prezio guztietan sartutzat jotzen dira kontratatutako prestazioak normaltasunez betetzeko enpresa esleipendunak egin beharreko gastu guztiak (hala nola gastu orokorrak, finantza-gastuak, etekinak, aseguruak, garraioak eta joan-etorriak, bere teknikarien ordain-sariak, egiaztatze- eta enkargu-gastuak, enbalatze-, ontziratze- eta manipulazio-gastuak, tasak, lizentziak, bisatuak eta era guztietako zergak –udal, probintzia, autonomia erkidego zein estatu mailakoak–, BEZ zergari dagozkionak izan ezik.

Lizitazio-aurrekontua beherantz hobetu ahal izango dute lizitatzaileek.

9. KLAUSULA.- FINANTZIAZIOA

Kontratu honen zenbatekoari aurre egiteko aski diru dago aurtengo aurrekontuaren kontu-sail hauetan:

1. lotea: 1 1000.227.07.327.12 2023 (3108)
2. lotea: 1 1000.227.07.327.12 2023 (3108)
3. lotea: 1 1000.227.07.327.12 2023 (3108) eta 1.0600.226.99.320.00 2023 (3084)
4. lotea: 1.0600.226.99.320.00 2023 (3084)
5. lotea: 1.0600.226.99.320.00 2023 (3084)

10. KLAUSULA.- ORDAINKETA ERA

Zerbitzuaren prezioa modu honetan ordainduko da.

- 1. lotearen (*herritarrentzako sexu eta harreman afektiboak*) ordainketa hileroko egindako zerbitzuen araberakoa izango da. Horretarako esleipendunak hilero aurkeztu beharko du dagokion faktura.

- 2. lotearen (*Karpa morea*) ordainketa bi zatitan egingo da, lehenengoa sagardo-denboraldiko zerbitzuen faktura aurkeztu ondoren, eta bigarrena Santio jaietako zerbitzuaren ondoren.

- 3. lotearena (*harreman osasuntsuak eta parekideak*) hiru ordainketatan, hiruhileko bakoitzaren amaieran (abenduaren amaieran, martxoaren amaieran eta ekainaren amaieran) dagokion faktura aurkeztu ondoren.

- 4. lotearen (*ingurune digitala*) eta 5. lotearen *(kontsumo arduratsua eta droga-mendekotasuna)* kasuan, ordainketa bakarrean, zerbitzua amaitu ondoren faktura aurkeztu ondoren.

Faktura guztiak telematikoki aurkeztu beharko dira eta jaso beharko dute eskainitako zerbitzuen zehaztapena eta horretarako emandako orduak.

Horiek, zerbitzuaren oniritzia jaso ondoren, aurkeztu eta 30 eguneko epean ordainduko dira.

11. KLAUSULA. KONTRATUAREN IRAUPENA.

Kontratu indarrean sartuko da sinatu eta hurrengo hilaren 1ean eta 2025eko abuztuaren 31a arte egongo da indarrean. Dena den, bi luzapen egin ahal izango dira, urtebeteko iraupenekoa bakoitza (irailaren 1etik abuztuaren 31ra). Ondorioz, kontratuaren gehieneko

iraupena – bi luzapenak barne, horiek onartuz gero – 2027eko abuztuaren 31ra artekoa izango da.

Luzapenak kontratazio-organoak erabakiko du –kontratua amaitu baino lehen– eta nahitaezkoa izango da enpresaburuarentzat, baldin eta aurreabisua gutxienez kontratua amaitu baino bi hilabete lehenago egiten bada.

Kontratuaren luzapena kontratistarentzat ez da nahitaezkoa izango kontratuan Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 198.6 artikuluan ezarrita dagoen suntsiarazteko kausa gertatzen denean, Administrazioa prezioaren ordainketan sei hilabete baino gehiago atzeratu delako.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 29.4 artikuluaren arabera, kontratua mugaeguneratzen denean kontratistak egin beharreko prestazioaren jarraipena bermatzen duen kontratu berria ez bada formalizatu, esleipen-prozeduran suertatzen diren eta kontratazio-organoarentzat ezin aurreikusizkoak diren gertakarien emaitzazko gorabeheren ondorioz, eta prestazioa ez eteteko interes publikoko arrazoiak badaude, jatorrizko kontratua luzatu ahal izango da kontratu berriaren egikaritzapena hasten den arte eta betiere bederatzi hilabeteko gehieneko epearekin, kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe, betiere kontratu berriaren lizitazio-iragarkia jatorrizko kontratuaren amaiera-data baino hiru hilabeteko gutxieneko aurrerapenarekin argitaratu bada.

Luzapena ez da inola ere gauzatuko alderdien isilbidezko adostasunez.

12. KLAUSULA. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Kontratu honen prezioak ezin izango dira berrikusi lehenengo bi urteetan. Hirugarren ikasturtetik aurrera, eta indarrean dagoen legeriak horretarako aukera ematen badu, prezioa berrikusi ahal izango da.

Kasu horretan, berrikuspenean aplikatu beharreko formula Gipuzkoako Lurralde Historikoko Kontsumoko Prezioen Indize orokorrak aurreko urte naturalean izandako aldakuntzari dagokiona izango da, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean funtzionario publikoen soldata-igoerarako ezartzen den mugarekin.

III.- LIZITATZAILEA

13. KLAUSULA. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratu hau esleitzeko aukera izango dute Espainiako edo atzerriko pertsona fisikoek edo juridikoek (bakarka edo enpresaburuen aldi baterako elkarteetan), baldin eta jarduteko erabateko ahalmena badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 72. artikuluan araututako kontratatzeko debekurik ezarri ez bazaie eta Administrazioarekin kontratatzeko

eskatzen den kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa dutela egiaztatzen badute, edo behar bezala sailkatuta badaude, ondorengo klausulan ezarritakoaren arabera.

Enpresaburuen Aldi Baterako Elkarteei, euren osaerari eta lizitazioan zehar horiek aldatzeko kasuei dagokienez, 69. artikuluko 8. atalean eta ondorengoetan xedatutakoari jarraituko zaio.

Pertsona juridikoak kontratuen esleipendunak izango dira kontratuen prestazioak fundazio-estatutuen edo fundazio-arauen arabera pertsona juridiko horiek berezkoak dituzten helburuen, xedearen edo jarduera-eremuaren barnean bilduta badaude.

Kontratistek, era berean, kontratuaren xede den jarduera edo prestazioa egiteko kasuan kasu eska daitekeen gaikuntza enpresarial edo profesionala eduki beharko dute.

Lan horiek egiteko bateraezina da lantaldeko kideek aholkularitza-zerbitzua ematea Astigarragan. Era berean, lantaldea osatzen duten profesionalek bateraezintasuna izango dute zerbitzu-kontratu honekin emandako zerbitzuaren erabiltzaileekiko jarduketetan, kontratua indarrean dagoen bitartean eta kontratua amaitu eta bi urtera arte.

Sozietate kontratistak parte hartzen duen enpresa-bategiteen kasuetan, kontratuak indarrean jarraituko du erakunde xurgatzailearekin edo bategitearen emaitzazkoarekin, eta kontratutik eratortzen diren eskubide eta betebehar guztietan subrogatuta geratuko da. Era berean, enpresen edota horien jarduera-adarren banantze, ekarpen edo transmisio kasuetan, kontratuak hura atxiki zaion erakundearekin jarraituko du, eta erakunde hori kontratutik eratorritako eskubide eta betebeharretan subrogatuta geratuko da, baldin eta gaitasunari eta kontratatzeko debekurik ez izateko baldintzak eta esleipena erabakitzen denean exijitzen den kaudimena betetzen baditu, edota eragiketa horien onuradun diren sozietateek eta, irauten badu, banandutako ondarearen, enpresen edo adarren jatorri den sozietateak, haiekin batera erantzukizun solidarioa bere gain hartzen badu kontratua egikaritzeari dagokionez. Kontratua atxikitzen zaion erakundeak beharrezko kaudimen-baldintzak ez betetzeagatik subrogazioa ezin bada gauzatu, kontratua suntsiarazi egingo da, eta ondorio guztietarako esleipendunaren erruzko suntsiarazpen-kasu bat bezala hartuko da.

Enpresa komunitarioei edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten Estatuetakoei eta enpresa ez komunitarioei dagokienez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 67. eta 68. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

14. KLAUSULA. GAITASUNA ETA KAUDIMENA.

14-a.- Ondorengo alderdiak egiaztatu beharko dituzte **1. LOTEra** (*sexu eta harreman afektiboen zerbitzua*). aurkezten diren lizitatzaileek:

1.- - Jarduteko gaitasun osoa dutela.

Pertsona juridikoa bada, kontratuaren prestazioak beren estatutuen edo eratze-arauen arabera berezko dituzten helburu, xede edo jarduera-esparruen barruan sartzen direla.

Espainiarrak ez diren enpresen jarduteko gaitasuna Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 84. artikuluan ezarritako moduan egiaztatu beharko da.

2.- Ez dutela betetzen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratatzeko debekua dakarren inguruabarrik.

3.- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituztela.

4.- **Kaudimen ekonomiko eta finantzario eta kaudimen tekniko edo profesional egokia dutela. Aipaturiko kaudimena jarraian aipatzen den dokumentazioaren bitartez egiaztatuko da**:

Lizitatzaileek honako gai hauek kreditatu beharko dituzte:

a).- Enpresaburuaren kaudimena ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzea

Enpresaburuaren ekonomia- eta finantza-kaudimena arrisku profesionalengatiko erantzukizun zibileko asegurua egin dela (gutxienez 20.000 eurokoa) adierazten duen egiaztagiriaren bitartez egiaztatu beharko da; baita kontratuaren egikaritzapen osoan haren estaldura mantenduko dela bermatzen duen berritze edo luzamendua gauzatzeko konpromisoarekin ere

b).- Kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzea.

1.- Enpresaren kaudimena

Azken hiru urteetako batean, kontratuaren xede diren zerbitzuen izaera bera edo antzerakoak duten zerbitzuengatik, gutxienez, 18.000,00 € (BEZik gabe) lanak fakturatu izana egiaztatu beharko da.

Egindako zerbitzuak edo lanak egiaztatzeko, dagokion organo eskudunak eman edo onetsitako ziurtagiriak aurkeztuko dira, hartzailea sektore publikoko erakundea bada; eta hartzailea subjektu pribatua bada, hark emandako ziurtagiria edo, halakorik ezean, enpresaburuaren adierazpena eta emandako zerbitzuengatik egindako fakturen kopia aurkeztu beharko dira.

b.2.- Lantaldearen kaudimena.

Zerbitzura gutxienez pertsona bat atxikituko da, eta hari egokituko zaio arreta zerbitzua (bai zuzenekoa edo aurrez aurrekoa, bai online modalitatekoa); baita koordinazio lanak egitea ere.

Lan horiek egitea bateraezina da lantaldeko kideek aholkularitza-zerbitzua ematea Astigarragan. Era berean, lantaldea osatzen duten profesionalek bateraezintasuna izango dute zerbitzu-kontratu honekin emandako zerbitzuaren erabiltzaileekiko jarduketetan, kontratua indarrean dagoen bitartean eta kontratua amaitu eta bi urtera arte.

Zerbitzura atxikitzen den pertsonek baldintza hauek bete behar dituzte:

- Unibertsitate gradua, diplomatura edo lizentziatura izatea (Gizarte Zientziak, Hezkuntza Zientziak edo Medikuntza Zientziak alorrekoa).
- Sexologian prestakuntza espezifikoa izatea, gutxienez 250 orduko iraupenekoa eta erakunde ofizial batek ziurtatua (unibertsitate edo herri-administrazioek).
- Azken bost urteetan sexologia-zerbitzuetan edo sexologian aditu gisa 400 ordutik gorako lana egin izana
- Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila edo baliokidea.
- Sexu-delitugileen Erregistro Zentralean inskribatuta ez egotea

14-b.- Ondorengo alderdiak egiaztatu beharko dituzte **2. LOTEra** (*Karpa morea*). aurkezten diren lizitatzaileek:

1.- - Jarduteko gaitasun osoa dutela.
Pertsona juridikoa bada, kontratuaren prestazioak beren estatutuen edo eratze-arauen arabera berezko dituzten helburu, xede edo jarduera-esparruen barruan sartzen direla.

Espainiarrak ez diren enpresen jarduteko gaitasuna Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 84. artikuluan ezarritako moduan egiaztatu beharko da.

2.- Ez dutela betetzen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratatzeko debekua dakarren inguruabarrik.

3.- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituztela.

4.- **Kaudimen ekonomiko eta finantzario eta kaudimen tekniko edo profesional egokia dutela. Aipaturiko kaudimena jarraian aipatzen den dokumentazioaren bitartez egiaztatuko da**:

Lizitatzaileek honako gai hauek kreditatu beharko dituzte:

a).- Enpresaburuaren kaudimena ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzea

Enpresaburuaren ekonomia- eta finantza-kaudimena arrisku profesionalengatiko erantzukizun zibileko asegurua egin dela (gutxienez 10.000 eurokoa) adierazten duen egiaztagiriaren bitartez egiaztatu beharko da; baita kontratuaren egikaritzapen osoan haren estaldura mantenduko dela bermatzen duen berritze edo luzamendua gauzatzeko konpromisoarekin ere

b).- Kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzea.

1.- Enpresaren kaudimena

Azken hiru urteetako batean, lotearen xede diren zerbitzuen izaera bera edo antzerakoak duten zerbitzuengatik, gutxienez, 5.000,00 € (BEZik gabe) lanak fakturatu izana egiaztatu beharko da.

Egindako zerbitzuak edo lanak egiaztatzeko, dagokion organo eskudunak eman edo onetsitako ziurtagiriak aurkeztuko dira, hartzailea sektore publikoko erakundea bada; eta hartzailea subjektu pribatua bada, hark emandako ziurtagiria edo, halakorik ezean, enpresaburuaren adierazpena eta emandako zerbitzuengatik egindako fakturen kopia aurkeztu beharko dira.

b.2.- Lantaldearen kaudimena.

Zerbitzura gutxienez bi pertsona atxikituko dira eta eurak arduratuko dira jai-giroan indarkeria matxistaren sentsibilizazio-, prebentzio- eta artatze-zerbitzua emateaz; koordinazio lanak egiteko langile bat izendatuko da, horietako bat edo hirugarren bat.

Lan horiek egiteko bateraezina da lantaldeko kideek aholkularitza-zerbitzua ematea Astigarragan. Era berean, lantaldea osatzen duten profesionalek bateraezintasuna izango dute zerbitzu-kontratu honekin emandako zerbitzuaren erabiltzaileekiko jarduketetan, kontratua indarrean dagoen bitartean eta kontratua amaitu eta bi urtera arte.

Zerbitzura atxikitzen den pertsonak, baldintza hauek bete beharko ditu:

- Unibertsitate gradua, diplomatura edo lizentziatura izatea (Gizarte Zientziak, Hezkuntza Zientziak edo Medikuntza Zientziak alorrekoa).
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun edo inkarkeria matxistaren gaietan prestakuntza espezifikoa izatea, gutxienez 150 orduko iraupenekoa eta erakunde ofizial batek ziurtatua (unibertsitate edo herri-administrazioek).
- Azken bost urteetan indarkeria matxistan sentsibilizazio-, prebentzio- eta artatzean 90 ordutik gorako lana egin izana edo 2 kanpainetan (bakoitza 45 ordukoa)
- Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila edo baliokidea.
- Sexu-delitugileen Erregistro Zentralean inskribatuta ez egotea

14-c.- Ondorengo alderdiak egiaztatu beharko dituzte **3. LOTEra** (*harreman osasuntsuak eta parekideak*). aurkezten diren lizitatzaileek:

1.- - Jarduteko gaitasun osoa dutela.
Pertsona juridikoa bada, kontratuaren prestazioak beren estatutuen edo eratze-arauen arabera berezko dituzten helburu, xede edo jarduera-esparruen barruan sartzen direla.

Espainiarrak ez diren enpresen jarduteko gaitasuna Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 84. artikuluan ezarritako moduan egiaztatu beharko da.

2.- Ez dutela betetzen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratatzeko debekua dakarren inguruabarrik.

3.- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituztela.

4.- **Kaudimen ekonomiko eta finantzario eta kaudimen tekniko edo profesional egokia dutela. Aipaturiko kaudimena jarraian aipatzen den dokumentazioaren bitartez egiaztatuko da**:

Lizitatzaileek honako gai hauek kreditatu beharko dituzte:

a).- Enpresaburuaren kaudimena ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzea

Enpresaburuaren ekonomia- eta finantza-kaudimena arrisku profesionalengatiko erantzukizun zibileko asegurua egin dela (gutxienez 30.000 eurokoa) adierazten duen egiaztagiriaren bitartez egiaztatu beharko da; baita kontratuaren egikaritzapen osoan haren estaldura mantenduko dela bermatzen duen berritze edo luzamendua gauzatzeko konpromisoarekin ere

b).- Kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzea.

1.- Enpresaren kaudimena

Azken hiru urteetako batean, lotearen xede diren zerbitzuen izaera bera edo antzerakoak duten zerbitzuengatik, gutxienez, 25.000,00 € (BEZik gabe) lanak fakturatu izana egiaztatu beharko da.

Egindako zerbitzuak edo lanak egiaztatzeko, dagokion organo eskudunak eman edo onetsitako ziurtagiriak aurkeztuko dira, hartzailea sektore publikoko erakundea bada; eta hartzailea subjektu pribatua bada, hark emandako ziurtagiria edo, halakorik ezean, enpresaburuaren adierazpena eta emandako zerbitzuengatik egindako fakturen kopia aurkeztu beharko dira.

b.2.- Lantaldearen kaudimena.

Zerbitzura gutxienez bi pertsona atxikituko dira eta eurak arduratuko dira harreman osasuntsuak eta parekideak eraikitzeko sentsibilizazio-, formakuntza- eta aholkularitza-zerbitzua emateaz; koordinazio lanak egiteko langile bakarra izendatuko da.

Lan horiek egiteko bateraezina da lantaldeko kideek aholkularitza-zerbitzua ematea Astigarragan. Era berean, lantaldea osatzen duten profesionalek bateraezintasuna izango

dute zerbitzu-kontratu honekin emandako zerbitzuaren erabiltzaileekiko jarduketetan, kontratua indarrean dagoen bitartean eta kontratua amaitu eta bi urtera arte.

Zerbitzura atxikitzen den pertsonak, baldintza hauek bete beharko ditu:

- Unibertsitate gradua, diplomatura edo lizentziatura izatea (Gizarte Zientziak, Hezkuntza Zientziak edo Medikuntza Zientziak alorrekoa).
- Sexologian prestakuntza espezifikoa izatea, gutxienez 250 orduko iraupenekoa eta erakunde ofizial batek ziurtatua (unibertsitate edo herri-administrazioek).
- Azken bost urteetan, bereziki haurrekin, nerabeekin, gazteekin eta hezkuntza-komunitatearekin, sexu eta afektibitate tailerrak ematen 500 ordutik gorako lana egin izana edo 3 kontratu gauzatu izana (bakoitza gutxienez 150 ordukoa) hezkuntza-komunitateari begira, 3. lotean jasotako zerbitzuak eskaini izana.
- Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila edo baliokidea.
- Sexu-delitugileen Erregistro Zentralean inskribatuta ez egotea

14-d.- Ondorengo alderdiak egiaztatu beharko dituzte **4. LOTEra** (*ingurune digitala*). aurkezten diren lizitatzaileek:

1.- - Jarduteko gaitasun osoa dutela.
Pertsona juridikoa bada, kontratuaren prestazioak beren estatutuen edo eratze-arauen arabera berezko dituzten helburu, xede edo jarduera-esparruen barruan sartzen direla.

Espainiarrak ez diren enpresen jarduteko gaitasuna Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 84. artikuluan ezarritako moduan egiaztatu beharko da.

2.- Ez dutela betetzen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratatzeko debekua dakarren inguruabarrik.

3.- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituztela.

4.- **Kaudimen ekonomiko eta finantzario eta kaudimen tekniko edo profesional egokia dutela. Aipaturiko kaudimena jarraian aipatzen den dokumentazioaren bitartez egiaztatuko da**:

Lizitatzaileek honako gai hauek kreditatu beharko dituzte:

a).- Enpresaburuaren kaudimena ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzea

Enpresaburuaren ekonomia- eta finantza-kaudimena arrisku profesionalengatiko erantzukizun zibileko asegurua egin dela (gutxienez 10.000 eurokoa) adierazten duen egiaztagiriaren bitartez egiaztatu beharko da; baita kontratuaren egikaritzapen osoan haren estaldura mantenduko dela bermatzen duen berritze edo luzamendua gauzatzeko konpromisoarekin ere

b).- Kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzea.

1.- Enpresaren kaudimena

Azken hiru urteetako batean, lotearen xede diren zerbitzuen izaera bera edo antzerakoak duten zerbitzuengatik, gutxienez, 6.000,00 € (BEZik gabe) lanak fakturatu izana egiaztatu beharko da.

Egindako zerbitzuak edo lanak egiaztatzeko, dagokion organo eskudunak eman edo onetsitako ziurtagiriak aurkeztuko dira, hartzailea sektore publikoko erakundea bada; eta hartzailea subjektu pribatua bada, hark emandako ziurtagiria edo, halakorik ezean, enpresaburuaren adierazpena eta emandako zerbitzuengatik egindako fakturen kopia aurkeztu beharko dira.

b.2.- Lantaldearen kaudimena.

Zerbitzura gutxienez pertsona bat atxikituko da, eta hari egokituko zaio ingurune digitalean jarrera eta harreman osasuntsu eta seguruak sustatzeko formakuntza ematea; baita koordinazio lanak egitea ere, langile bakarra izendatu bada.

Lan horiek egiteko bateraezina da lantaldeko kideek aholkularitza-zerbitzua ematea Astigarragan. Era berean, lantaldea osatzen duten profesionalek bateraezintasuna izango dute zerbitzu-kontratu honekin emandako zerbitzuaren erabiltzaileekiko jarduketetan, kontratua indarrean dagoen bitartean eta kontratua amaitu eta bi urtera arte.

Zerbitzura atxikitzen den pertsonak, baldintza hauek bete beharko ditu:

- Unibertsitate gradua, diplomatura edo lizentziatura izatea.
- Ingurune digitalaren arriskuen eta haur eta gazteengan izan ditzaketen eraginei buruzko prestakuntza jaso izana, gutxienez 150 orduko iraupenekoa.
- Azken bost urteetan hezkuntza-komunitateari begira, formakuntza, sentsibilizazio edota aholkularitzan 100 ordutik gorako lana egin izana edo 2 ikastetxetan.
- Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila edo baliokidea.
- Sexu-delitugileen Erregistro Zentralean inskribatuta ez egotea

14-e.- Ondorengo alderdiak egiaztatu beharko dituzte **5. LOTEra** (*kontsumo arduratsua eta droga-mendekotasuna*) aurkezten diren lizitatzaileek:

1.- - Jarduteko gaitasun osoa dutela.
Pertsona juridikoa bada, kontratuaren prestazioak beren estatutuen edo eratze-arauen arabera berezko dituzten helburu, xede edo jarduera-esparruen barruan sartzen direla.

Espainiarrak ez diren enpresen jarduteko gaitasuna Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 84. artikuluan ezarritako moduan egiaztatu beharko da.

2.- Ez dutela betetzen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratatzeko debekua dakarren inguruabarrik.

3.- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituztela.

4.- **Kaudimen ekonomiko eta finantzario eta kaudimen tekniko edo profesional egokia dutela. Aipaturiko kaudimena jarraian aipatzen den dokumentazioaren bitartez egiaztatuko da**:

Lizitatzaileek honako gai hauek kreditatu beharko dituzte:

a).- Enpresaburuaren kaudimena ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzea

Enpresaburuaren ekonomia- eta finantza-kaudimena arrisku profesionalengatiko erantzukizun zibileko asegurua egin dela (gutxienez 10.000 eurokoa) adierazten duen egiaztagiriaren bitartez egiaztatu beharko da; baita kontratuaren egikaritzapen osoan haren estaldura mantenduko dela bermatzen duen berritze edo luzamendua gauzatzeko konpromisoarekin ere

b).- Kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzea.

1.- <u>Enpresaren kaudimena</u>

Azken hiru urteetako batean, lotearen xede diren zerbitzuen izaera bera edo antzerakoak duten zerbitzuengatik, gutxienez, 2.500,00 € (BEZik gabe) lanak fakturatu izana egiaztatu beharko da.

Egindako zerbitzuak edo lanak egiaztatzeko, dagokion organo eskudunak eman edo onetsitako ziurtagiriak aurkeztuko dira, hartzailea sektore publikoko erakundea bada; eta hartzailea subjektu pribatua bada, hark emandako ziurtagiria edo, halakorik ezean, enpresaburuaren adierazpena eta emandako zerbitzuengatik egindako fakturen kopia aurkeztu beharko dira.

b.2.- Lantaldearen kaudimena.

Zerbitzura gutxienez pertsona bat atxikituko da, eta hari egokituko zaio kontsumo arduratsua eta droga-mendekotasuna prebenitzeko formakuntza ematea; baita koordinazio lanak egitea ere, langile bakarra izendatu bada.

Lan horiek egiteko bateraezina da lantaldeko kideek aholkularitza-zerbitzua ematea Astigarragan. Era berean, lantaldea osatzen duten profesionalek bateraezintasuna izango dute zerbitzu-kontratu honekin emandako zerbitzuaren erabiltzaileekiko jarduketetan, kontratua indarrean dagoen bitartean eta kontratua amaitu eta bi urtera arte.

Zerbitzura atxikitzen den pertsonak, baldintza hauek bete beharko ditu:

- Unibertsitate gradua, diplomatura edo lizentziatura izatea.
- Droga-mendekotasuna eta adikzioei buruzko prestakuntza jaso izana, gutxienez 150 orduko iraupenekoa eta erakunde ofizial batek ziurtatua (unibertsitate edo herri-administrazioek).
- Azken bost urteetan, gutxienez, 2 ikastetxetan ikasleen artean kontsumoa prebenitzeko esku-hartzeak eskaini izana.
- Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila edo baliokidea.
- Sexu-delitugileen Erregistro Zentralean inskribatuta ez egotea

15. KLAUSULA. KAUDIMENA KANPOKO BALIABIDEEKIN OSATZEA.

SPKLren 75.1 artikuluarekin bat etorriz, enpresaburuak beste entitate batzuen kaudimena eta baliabideak balia ditzake, haiekin dituen loturen izaera juridikoa edozein dela ere, baldin eta frogatzen badu kontratuaren egikaritzapen osoan zehar kaudimen eta baliabide horiek efektiboki edukiko dituela, eta baliatzen duen enpresa kontratatzeko debekuaren eraginpean ez badago.

Beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritu nahi duten lizitatzaileek hala adierazi beharko dute A gutun-azalean sartu beharreko erantzukizunpeko adierazpenean (II. eranskina).

Kasu horretan, erakunde horietako langileek kontratuari atxikitako lantaldeko kide izan beharko dute.

IV.- ESLEITZEKO PROZEDURA

16. KLAUSULA. Esleipenaren tramitazioa eta prozedura

Prozedura ireki arrunt bidez esleituko da kontratua.

Proposamenak baloratzeko eta kontratua esleitzeko, irizpide ugari erabiliko da, kalitate-prezio erlaziorik onenaren arabera. Kalitate-prezio erlazio hori kontratuaren xedearekin zuzenean lotutako irizpide ekonomiko eta kualitatiboen arabera ebaluatuko da, SPKLaren 145. artikuluaren eta honako Plegu Administratiboaren edukiaren arabera.

17. KLAUSULA. PUBLIZITATEA.

Administrazio Publikoen kontratuak esleitzeko lizitazio-iragarkia Eusko Jaurlaritzaren kontratazio-plataforman kokatuta dagoen Astigarragako Udalaren kontratatzaile-profilean argitaratuko da, eta bertan sartzeko 3. klausulan xedatzen dena kontuan izango da.

18. KLAUSULA. ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK.

1. LOTEA (*herritarrentzako sexu eta harreman afektiboak*) esleitzeko oinarritzat hartuko diren irizpideak honako hauek dira:

	ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK:	Puntuak	Zer gutun-azaletan egiaztatzen den
1	Proposamen ekonomikoa	0-55	C gutun-azala
2	Proposamen teknikoa	0-45	B gutun-azala

1.- Proposamen ekonomikoa: 0-55 puntu

Onartutako proposamenen eskaintza ekonomikoak puntuatuko dira interpolazio lineala erabiliz, P1 (Baja maximoa, Puntuazio maximoa) eta P2 (Baja zero, Puntuazio minimoa) puntuen artean egindako lerroaren barruan. Honako hauek dira puntuak:

P1 – Eskaintzarik ekonomikoena (Baja maximoa), puntuazio maximoa jasoko duena (Pmax puntu).
P2 – Lizitazio motari dagokio eta puntuazio minimoa emango zaio, formula honen arabera:

Pmin = Pmax x (1-Bmax)
(Bmax = Baja maximoa)

Baja (B) da lizitazio mota ken eskaintza ekonomikoa, zati lizitazio mota. Lehen aipatutako lerroa egiteko, onartutako oinarri-eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.

Hasiera batean, **neurriz kanpokotzat edo ezohikotzat** hartuko dira onartutako eskaintzen prezio guztien neurri aritmetikoa baino txikiagoak diren eskaintzak, 10 unitate baino txikiagoak direnak, eta eskaintzak halakotzat hartzeko, ustez eskaintzaren barruan dauden lizitatzaile guztiei eskatu beharko zaie informazioa aurretik, baita dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa ere.

2.- proposamen teknikoa. 0-45 puntu:

Eskaintza teknikoaren kalitatea neurtu da, alderdi hauek baloratuz:

a.- Eginkizunen aurreikuspena eta jarraipena egiteko modua (gehienez 15 puntu)

b.- Antolaketa-koordinazioa bideratzeko proposamena (gehienez 15 puntu)

c.- Giza baliabideen eta bitartekoen proposamena (gehienez 10 puntu)

Zerbitzuari atxikitako pertsonen formazioa balioztuko da (pertsona horiek A gutun-azalean agertu behar dute, eta baloraziotik kanpo geratuko dira agiri honetan kaudimen-baldintzatzat jo diren inguruabarrak).

- Sexologian prestakuntza espezifikoa izatea erakunde ofizial batek ziurtatua (unibertsitate edo herri-administrazioek).
  - Master ofiziala: 3 puntu
  - Unibertsitate mailako berezko titulua: 2 puntu

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun gaiean prestakuntza espezifikoa izatea erakunde ofizial batek ziurtatua (unibertsitate edo herri-administrazioek).
  - Master ofiziala: 2 puntu
  - Unibertsitate mailako berezko titulua: 1 puntu
  - Erakunde ofizial baten (unibertsitatea edo administrazioa) 150 ordutik gorako ikastaroa: 1 puntu.
- Zerbitzua emango duten langileen lan-esperientzia lote honen lizitazioarekin zerikusia duten programa edo zerbitzuetan: 0,2 puntu 50 lanorduko.

d.- Jarduera osagarrien proposamena (5 puntu)

2. LOTEA (*Karpa morea*) esleitzeko oinarritzat hartuko diren irizpideak honako hauek dira:

	ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK:	**Puntuak**	**Zer gutun-azaletan egiaztatzen den**
1	Proposamen ekonomikoa	0-55	C gutun-azala
2	Proposamen teknikoa	0-45	B gutun-azala

1.- Proposamen ekonomikoa: 0-55 puntu

Onartutako proposamenen eskaintza ekonomikoak puntuatuko dira interpolazio lineala erabiliz, P1 (Baja maximoa, Puntuazio maximoa) eta P2 (Baja zero, Puntuazio minimoa) puntuen artean egindako lerroaren barruan. Honako hauek dira puntuak:

P1 – Eskaintzarik ekonomikoena (Baja maximoa), puntuazio maximoa jasoko duena (Pmax puntu).
P2 – Lizitazio motari dagokio eta puntuazio minimoa emango zaio, formula honen arabera:

Pmin = Pmax x (1-Bmax)
(Bmax = Baja maximoa)

Baja (B) da lizitazio mota ken eskaintza ekonomikoa, zati lizitazio mota. Lehen aipatutako lerroa egiteko, onartutako oinarri-eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.

Hasiera batean, **neurriz kanpokotzat edo ezohikotzat** hartuko dira onartutako eskaintzen prezio guztien neurri aritmetikoa baino txikiagoak diren eskaintzak, 10 unitate baino txikiagoak direnak, eta eskaintzak halakotzat hartzeko, ustez eskaintzaren barruan dauden lizitatzaile guztiei eskatu beharko zaie informazioa aurretik, baita dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa ere.

2.- <u>proposamen teknikoa</u>. 0-45 puntu:

Eskaintza teknikoaren kalitatea neurtu da, alderdi hauek baloratuz:

a.- Eginkizunen aurreikuspena eta jarraipena egiteko modua (gehienez 15 puntu)

b.- Antolaketa-koordinazioa bideratzeko proposamena (gehienez 15 puntu)

c.- Giza baliabideen eta bitartekoen proposamena (gehienez 10 puntu)

Zerbitzuari atxikitako pertsonen formazioa balioztuko da (pertsona horiek A gutun-azalean agertu behar dute, eta baloraziotik kanpo geratuko dira agiri honetan kaudimen-baldintzatzat jo diren inguruabarrak).

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun gaiean prestakuntza espezifikoa izatea erakunde ofizial batek ziurtatua (unibertsitate edo herri-administrazioek).
  - Master ofiziala: 3 puntu
  - Unibertsitate mailako berezko titulua: 2 puntu

- Sexologian prestakuntza espezifikoa izatea erakunde ofizial batek ziurtatua (unibertsitate edo herri-administrazioek).
  - Master ofiziala: 2 puntu
  - Unibertsitate mailako berezko titulua: 1 puntu
  - Sexologian prestakuntza espezifikoa izatea, gutxienez 150 orduko iraupenekoa eta erakunde ofizial batek ziurtatua (unibertsitate edo herri-administrazioek): 1 puntu
- Zerbitzua emango duten langileen lan-esperientzia lote honen lizitazioarekin zerikusia duten programa edo zerbitzuetan: 0,2 puntu 50 lanorduko.

d.- Jarduera osagarrien proposamena (gehienez 5 puntu)

<u>3. LOTEA</u> (*harreman osasuntsuak eta parekideak)* esleitzeko oinarritzat hartuko diren irizpideak honako hauek dira:

	ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK:	**<u>Puntuak</u>**	**<u>Zer gutun-azaletan egiaztatzen den</u>**

1	Proposamen ekonomikoa	0-55	C gutun-azala
2	Proposamen teknikoa	0-45	B gutun-azala

1.- <u>Proposamen ekonomikoa</u>: 0-55 puntu

Onartutako proposamenen eskaintza ekonomikoak puntuatuko dira interpolazio lineala erabiliz, P1 (Baja maximoa, Puntuazio maximoa) eta P2 (Baja zero, Puntuazio minimoa) puntuen artean egindako lerroaren barruan. Honako hauek dira puntuak:

P1 – Eskaintzarik ekonomikoena (Baja maximoa), puntuazio maximoa jasoko duena (Pmax puntu).
P2 – Lizitazio motari dagokio eta puntuazio minimoa emango zaio, formula honen arabera:

Pmin = Pmax x (1-Bmax)
(Bmax = Baja maximoa)

Baja (B) da lizitazio mota ken eskaintza ekonomikoa, zati lizitazio mota. Lehen aipatutako lerroa egiteko, onartutako oinarri-eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.

Hasiera batean, **neurriz kanpokotzat edo ezohikotzat** hartuko dira onartutako eskaintzen prezio guztien neurri aritmetikoa baino txikiagoak diren eskaintzak, 10 unitate baino txikiagoak direnak, eta eskaintzak halakotzat hartzeko, ustez eskaintzaren barruan dauden lizitatzaile guztiei eskatu beharko zaie informazioa aurretik, baita dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa ere.

2.- <u>proposamen teknikoa</u>. 0-45 puntu:

Eskaintza teknikoaren kalitatea neurtu da, alderdi hauek baloratuz:

a.- Eginkizunen aurreikuspena eta jarraipena egiteko modua (gehienez 15 puntu)

b.- Antolaketa-koordinazioa bideratzeko proposamena (gehienez 15 puntu)

c.- Giza baliabideen eta bitartekoen proposamena (gehienez 10 puntu)

Zerbitzuari atxikitako pertsonen formazioa balioztuko da (gehienez pertsona horiek A gutun-azalean agertu behar dute, eta baloraziotik kanpo geratuko dira agiri honetan kaudimen-baldintzatzat jo diren inguruabarrak).

- Sexologian prestakuntza espezifikoa izatea erakunde ofizial batek ziurtatua (gehienez unibertsitate edo herri-administrazioek).
  - Master ofiziala: 3 puntu
  - Unibertsitate mailako berezko titulua: 2 puntu
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun gaiean prestakuntza espezifikoa izatea erakunde ofizial batek ziurtatua (gehienez unibertsitate edo herri-administrazioek).

- Master ofiziala: 2 puntu
- Unibertsitate mailako berezko titulua edo erakunde ofizial baten (gehienez unibertsitatea edo administrazioa) 150 ordutik gorako ikastaroa: 1 puntu.

- Aisialdiko begirale titulua izatea: 1 puntu
- Zerbitzua emango duten langileen lan-esperientzia lote honen lizitazioarekin zerikusia duten programa edo zerbitzuetan: 0,2 puntu 50 lanorduko.

d.- Jarduera osagarrien proposamena (gehienez 5 puntu)

4. LOTEA (*ingurune digitala*) esleitzeko oinarritzat hartuko diren irizpideak honako hauek dira:

	ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK:	**Puntuak**	**Zer gutun-azaletan egiaztatzen den**
1	Proposamen ekonomikoa	0-55	C gutun-azala
2	Proposamen teknikoa	0-45	B gutun-azala

1.- Proposamen ekonomikoa: 0-55 puntu

Onartutako proposamenen eskaintza ekonomikoak puntuatuko dira interpolazio lineala erabiliz, P1 (Baja maximoa, Puntuazio maximoa) eta P2 (Baja zero, Puntuazio minimoa) puntuen artean egindako lerroaren barruan. Honako hauek dira puntuak:

P1 – Eskaintzarik ekonomikoena (Baja maximoa), puntuazio maximoa jasoko duena (Pmax puntu).
P2 – Lizitazio motari dagokio eta puntuazio minimoa emango zaio, formula honen arabera:

Pmin = Pmax x (1-Bmax)
(Bmax = Baja maximoa)

Baja (B) da lizitazio mota ken eskaintza ekonomikoa, zati lizitazio mota. Lehen aipatutako lerroa egiteko, onartutako oinarri-eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.

Hasiera batean, **neurriz kanpokotzat edo ezohikotzat** hartuko dira onartutako eskaintzen prezio guztien neurri aritmetikoa baino txikiagoak diren eskaintzak, 10 unitate baino txikiagoak direnak, eta eskaintzak halakotzat hartzeko, ustez eskaintzaren barruan dauden lizitatzaile guztiei eskatu beharko zaie informazioa aurretik, baita dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa ere.

2.- proposamen teknikoa. 0-45 puntu:

Eskaintza teknikoaren kalitatea neurtu da, alderdi hauek baloratuz:

a.- Eginkizunen aurreikuspena eta jarraipena egiteko modua (gehienez 15 puntu)

b.- Antolaketa-koordinazioa bideratzeko proposamena (gehienez 15 puntu)

c.- Giza baliabideen eta bitartekoen proposamena (gehienez 10 puntu)

Zerbitzuari atxikitako pertsonen formazioa eta esperientzia profesionala balioztuko da (gehienez pertsona horiek A gutun-azalean agertu behar dute, eta baloraziotik kanpo geratuko dira agiri honetan kaudimen-baldintzatzat jo diren inguruabarrak).

- Sare sozialen ezagutzei, ingurune digitalaren arriskuen eta haur eta gazteengan izan ditzaketen eragini buruzko inguruko ikastaroak:

  100 eta 250 ordu bitarteko ikastaroak: 0,50 puntu ikastaroko.
  251 eta 500 ordu bitartekoak: puntu 0,75 ikastaroko
  501 ordutik gorakoak: 1,5 puntu ikastaroko

- Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko prestakuntza espezifikoa izatea, gutxienez 150 orduko iraupenekoa eta erakunde ofizial batek ziurtatua (gehienez unibertsitate edo herri-administrazioek): 1 puntu.

- Zerbitzua emango duten langileen lan-esperientzia lote honen lizitazioarekin zerikusia duten programa edo zerbitzuetan: 0,2 puntu 50 lanorduko.

d.- Jarduera osagarrien proposamena (gehienez 5 puntu)

5. **LOTEA** *(kontsumo arduratsua eta droga-mendekotasuna) esleitzeko oinarritzat hartuko diren irizpideak honako hauek dira:*

	ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK:	**Puntuak**	**Zer gutun-azaletan egiaztatzen den**
1	Proposamen ekonomikoa	0-55	C gutun-azala
2	Proposamen teknikoa	0-45	B gutun-azala

1.- Proposamen ekonomikoa: 0-55 puntu

Onartutako proposamenen eskaintza ekonomikoak puntuatuko dira interpolazio lineala erabiliz, P1 (Baja maximoa, Puntuazio maximoa) eta P2 (Baja zero, Puntuazio minimoa) puntuen artean egindako lerroaren barruan. Honako hauek dira puntuak:

P1 – Eskaintzarik ekonomikoena (Baja maximoa), puntuazio maximoa jasoko duena (Pmax puntu).
P2 – Lizitazio motari dagokio eta puntuazio minimoa emango zaio, formula honen arabera:

Pmin = Pmax x (1-Bmax)
(Bmax = Baja maximoa)

Baja (B) da lizitazio mota ken eskaintza ekonomikoa, zati lizitazio mota. Lehen aipatutako lerroa egiteko, onartutako oinarri-eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.

Hasiera batean, **neurriz kanpokotzat edo ezohikotzat** hartuko dira onartutako eskaintzen prezio guztien neurri aritmetikoa baino txikiagoak diren eskaintzak, 10 unitate baino txikiagoak direnak, eta eskaintzak halakotzat hartzeko, ustez eskaintzaren barruan dauden lizitatzaile guztiei eskatu beharko zaie informazioa aurretik, baita dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa ere.

2.- <u>proposamen teknikoa</u>. 0-45 puntu:

Eskaintza teknikoaren kalitatea neurtu da, alderdi hauek baloratuz:

a.- Eginkizunen aurreikuspena eta jarraipena egiteko modua (gehienez 15 puntu)

b.- Antolaketa-koordinazioa bideratzeko proposamena (gehienez 15 puntu)

c.- Giza baliabideen eta bitartekoen proposamena (gehienez 10 puntu)

Zerbitzuari atxikitako pertsonen formazioa eta esperientzia profesionala balioztuko da (gehienez pertsona horiek A gutun-azalean agertu behar dute, eta baloraziotik kanpo geratuko dira agiri honetan kaudimen-baldintzatzat jo diren inguruabarrak).

- Droga-mendekotasuna eta adikzioei buruzko prestakuntza espezifikoa izatea erakunde ofizial batek ziurtatua (unibertsitate edo herri-administrazioek).
  - Master ofiziala: 3 puntu
  - Unibertsitate mailako berezko titulua: 2 puntu

- Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko prestakuntza espezifikoa izatea, gutxienez 150 orduko iraupenekoa eta erakunde ofizial batek ziurtatua (gehienez unibertsitate edo herri-administrazioek): 1 puntu.

- Zerbitzua emango duten langileen lan-esperientzia lote honen lizitazioarekin zerikusia duten programa edo zerbitzuetan: 0,2 puntu 50 lanorduko.

d.- Jarduera osagarrien proposamena (gehienez 5 puntu)

<u>19. KLAUSULA.- BERMEAK</u>

<u>Behin-behineko bermea:</u> Lizitazio honetan parte hartzeko, ez da behin-behineko bermea jartzerik eskatzen.

Behin betiko bermea: Kontratu Legearen 107.3 artikuluari jarraikiz, hartutako betebeharrak beteko dituela bermatzeko, lote bakoitzaren kontratuaren esleipendunak lizitazio prezioaren % 5eko behin betiko bermea jarri behar du.

Berme hori jartzeko epea 10 egun baliodunekoa izango da, kontratuaren lote bakoitzaren esleipenaren jakinarazpenaren hurrengo egunetik kontatzen hasita, Udal Diruzaintzan jarri beharko da; eskudirutan jarriko da edo kontratu legearen 108. artikuluan xedatzen den edozein baliabide erabiliz.

Behin betiko bermea Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 110. artikuluan aipatzen diren kontzeptuen araberakoa izango da. Kontzeptu horien artean jasota dago kontratistak kontratuaren xede diren prestazioen egikaritze okerraren ondorioz hirugarrenei eragindako kalte eta galerak ordaintzeko betebeharra (SPKLren 196. artikuluan aurreikusten dena) ez betetzea.

Kontratu-aldaketaren ondorioz kontratuaren prezioa aldatu egin bada, bermea egokitu egingo da enpresaburuari aldatzeko erabakia jakinarazten zaion egunetik kontatzen hasita 15 eguneko epean, betiere aldaketaren ondoriozko kontratuaren prezio berriarekiko proportzio egokia izan dezan, eta hala egin ezean kontratua suntsiarazteko kausa izan daiteke. Zehapenak edo kalte-ordainketak gauzatzen diren datatik zenbatzen hasi eta epe berdinean, esleipendunak bermea berrezarri edo handitu beharko du dagokion zenbatekoan, eta hala egin ezean kontratua suntsiarazteko kausa izan daiteke. Horri lotuta, I. Liburuko III. Tituluko II. Kapituluan adierazitakoaren arabera egiten den prezio-berrikuspen baten ondorioz gertatzen diren prezio-aldaketak ez dira kontuan izango.

Bermeak itzultzeko, kontratu legearen 111 artikuluan ezarritakoa hartuko da kontuan, eta kontratuaren likidazioa onartu ondoren eta bermearen epea igaro ondoren antolatuko da, beti ere erantzukizunik ez badago.

V.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

20. KLAUSULA. PROPOSAMENEN EZAUGARRIAK.

1. Lizitatzaile bakoitzak ezingo du aurkeztu – lote bakoitzerako – proposamen bat baino gehiago. Ezingo du beste batzuekin aldi baterako batuta prestatutako proposamenik ere izenpetu bere aldetik proposamenen bat aurkeztu badu, edo ezingo du aldi baterako enpresa-elkarte batean baino gehiagotan azaldu. Arau horiek urratzen dituen lizitatzaileak izenpetutako proposamen guztiak baztertuko dira.

2. Proposamenak aurkezteak berekin dakar plegu honen zein preskripzio teknikoen pleguaren klausuletan jasotzen den eduki osoa baldintzarik gabe onartzea, inolako salbuespenik edo erresalburik gabe.

3. Ez da onartuko eskaintza argi eta garbi ezagutzea eragozten duten omisioak, hutsak edo ezabaketak dituen proposamenik.

4.- **lizitatzaileen datuen babesari buruzko informazioa**:

4.1. Zerbitzua emango duten langileen datu pertsonalak, bai pertsona fisikoen kasuan, bai pertsona juridiko baten ordezkarien kasuan, bai curriculumari eta lan-arloko beste batzuei dagokienez, Astigarragako Udalak tratatuko ditu, datuen tratamenduaren arduradun gisa.

4.2. Udalean tratatutako dituen datuak interesdunak berak edo bere legezko ordezkariak, administrazio publikoek eta erregistro publikoek emandakoak dira.

4.3. Tratatzen diren datuen kategoriak hauek dira: identifikazio-datuak, identifikazio-kodeak edo -gakoak, posta-helbideak edo helbide elektronikoak, merkataritza-informazioa eta datu ekonomikoak.

4.4. Datuak tratatzeko legitimazioa kontratuaren esleipena kudeaketa datza, kontratua formalizatu eta gauzatzeko, adjudikaziodunari esleitzen bazaio.

4.5. Datuak tratatzeko lege-oinarria Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean dago.

4.6. Informazioa biltzearen eta tratatzearen helburua da zerbitzuak hautatzeko edo esleitzeko prozesuaren egokitasuna baloratzea, baita – esleipenduna izanez gero – Udalarekin kontratuzko harremana mantentzeko erabiltzea ere, eratorritako alderdi ekonomiko eta teknikoei dagokienez, eta kontratatutako zerbitzuak kontrolatzea, eta, hala badagokio, gertaerekin zerikusia duten gorabeherei buruzko informazioa bidaltzea.

4.7. Jakinarazten da datu pertsonalak erakunde publiko eskudunei – Estatukoei edo autonomikoei – Laga edo jakinarazi ahal izango zaizkiela, Legearen arabera aurreikusitako kasuetan. Halaber, Administrazio Publikoaren iragarki-tauletan eta egunkari edo aldizkari ofizialetan argitaratu ahal izango dira.

4.8. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduarekin (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoarekin bat etorriz, interesdunek beren datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko, ahazteko, aurka egiteko eta transferitzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte. Horretarako, idazki bat bidali beharko dute Udalera, NANarekin batera.

21. KLAUSULA. PROPOSAMENAK AURKEZTEA.

Proposamenak aurkeztuko dira Udalaren erregistro telematikoan (www.astigarraga.eus/eu/tramiteak), lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzen den egunaren ondorengo egunetik kontatzen hasi eta **25 egutegi-eguneko** epearen barruan.

Lizitatzaileek aukera dute lote bakarrera, hainbat loteetara edo lote guztientzako eskaintzak aurkeztu. Baina, azken kasu horretan lote bakoitzarentzat eskabide bana egin behar dute eta dokumentazio desberdina aurkeztu.

Ez dira onartuko adierazitako modu, epe eta lekuan aurkezten ez diren proposamenak.

22. KLAUSULA.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Lizitatzaileek honako dokumentazio honen arabera aurkeztu beharko dituzte beren eskaintzak:

A GUTUN-AZALA	DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA
B GUTUN-AZALA	PROPOSAMEN TEKNIKOA
C GUTUN-AZALA	ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA BALIOZKO JUDIZIOEN MENPE EZ DAUDEN IRIZPIDEAK

Dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko du udaletxeko erregistroan, eta proposamena erregistratzen denean honako hau adierazi beharko da kontzeptuan:

1. Loterako aurkeztuz gero: 1. LOTEA (*herritarrentzako sexu eta harreman afektiboak*).
2. Loterako aurkeztuz gero: 2. LOTEA (*Karpa morea*).
3. Loterako aurkeztuz gero: 3. LOTEA (*harreman osasuntsuak eta parekideak*).
4. Loterako aurkeztuz gero: 4. LOTEA (*ingurune digitala*).
5. Loterako aurkeztuz gero: 5. LOTEA (*kontsumo arduratsua eta droga-mendekotasuna*).

Kartazal – artxibo elektroniko bakoitzeko dokumentazioa “pdf”·dokumentu batean sartu beharko da, eta ireki ahal izateko pasahitz bat **ezarri daiteke**; kontratazio-mahaiari pasahitz hori adierazi beharko zaiona kartazal – artxibo elektronikoa irekitzeko egintza publikoa hasi baino 5 minutu lehenago. Kartazalak irekitzeko gako hori ez bada ematen, edota dokumetua ezin bada ireki, lizitatatzailea lizitazio prozesutik kanpo geldituko da.

Ondoren adierazten den dokumentazioa jaso beharko du lote bakoitzeko kartazal – artxibo elektroniko bakoitzak (**lote bakoitzeko eskaintza, esan bezala, sarrera telematiko desberdinean erregistratu behar da; alegia, bi lotetan parte hartu nahi dutenek, bi eskaintza egin beharko dituzte eta bakoitza bere aldetik erregistratu**):

A. kartazala – artxibo elektronikoa: Dokumentazio Administratiboa:

1. Kontratazioko europar agiri bakarraren inprimakiaren eredua beteko duen erantzukizunpeko adierazpena zeina ondoko helbide elektronikoan eskuragarri dagoen https://ec.europa.eu/tools/espd/filter?lang=es edo Plegu honetan jasotzen den erantzukizunpeko adierazpena (I. eranskina eskaintza aurkezten den lotearen arabera);

adierazpen hori sinatuta egon behar da, eta dagokion identifikazioarekin, eta honako hau adierazi behar du lizitatzaileak:

a. Dagokion sailkapena duela, edo exijitzen diren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko baldintzak betetzen dituela, kontrataziorako europar agiri bakarraren inprimaki bakarraren arabera plegu hauek ezartzen dituen baldintzetan.

b.- Pertsona juridikoa bada, **s**ozietatea baliozko moduan eratuta dagoela eta, sozietatearen helburuaren arabera, lizitaziora aurkez daitekeela, eta adierazpenaren sinatzaileak dagokion ordezkagarritasuna duela proposamena aurkezteko.

c. Bere kabuz edo hedapenez kontratatzeko debekurik ez duela SPKLaren 71.3 artikulua aplikatzearen ondorioz.

2. Zerbitzua egikaritzeko eskatutako gutxieneko lantaldea atxikitzeko eta kontratua egikarituko duten pertsonak izendatzeko (langileen izena-abizenak) konpromisoa hartzen duela; pertsona horiek kontraturako exijitzen den kaudimena betetzen dutela dioen adierazpena ere aurkeztuko da.

3.- Enpresariak, SPKLaren 75. Artikuluaren arabera, beste enpresa batzuen kaudimenera edo bitartekoetara joko balu, horietako bakoitzak ere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, eta adierazpen horretan kasu horietarako beharrezko informazioa jaso beharko da, kontrataziorako europar agiri bakarraren inprimaki normalizatuaren arabera (II. eranskina eskaintza aurkezten den lotearen arabera)

4.- Jakinarazpenak egiteko posta elektroniko helbide bat.

5. Hainbat enpresari aldi baterako enpresa-elkarte batean elkartuta aurkezten badira, enpresa-elkarte horretan parte hartzen duen enpresa bakoitzeko erantzukizunpeko adierazpen bana aurkeztu beharko da, eta adierazpen horietan kasu horietarako kontrataziorako europar agiri bakarraren inprimakian eskatzen den informazioa jaso beharko da (III eranskina eskaintza aurkezten den lotearen arabera).

Aurreko paragrafoan aipatutako adierazpenez gain, aldi baterako enpresa-elkarteetan aurkezten diren enpresariek betebeharrak solidarioki bete beharko dituzte, eta elkartearen ordezkari edo apoderatu bakarra izendatu beharko dute, eskubideak erabiltzeko eta kontratuaren ondoriozko betebeharrak kontratua deuseztatu bitartean betetzeko behar adinako ahalordeak dituena; horrez gain, ahalorde mankomunatuak ere egon daitezke, zenbateko handiko kobrantza eta ordainketetarako eman ditzaketenak. Halaber, enpresa-elkartea eratzen dutenen izenak eta inguruabarrak, eta horietako bakoitzaren partaidetza adierazi beharko dute, bai eta kontratuaren esleipendun izanez gero aldi baterako enpresa-elkarte gisa formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere.

6. Lehenengo puntuan aipatzen den erantzukizunpeko adierazpenaz gain, atzerriko enpresek adierazpena aurkeztuko dute, zuzenean edo zeharka kontratutik sor daitezkeen gorabeheretarako, Espainiako edozein lege-arlotako Epaitegiren eta Auzitegiren jurisdikziopean jartzen direla esanez, eta, hala balegokio, dagokiekeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko eginez.

Kontratazio mahaiak frogagiri guztiak eta batzuk aurkez ditzatela eskatu ahal izango die lizitatzaileei, adierazpenaren indarraldiari edo fidagarritasunari buruzko arrazoizko zalantzak daudenean, prozedura behar bezala garatzeko beharrezkoa denean eta, nolanahi ere, kontratua esleitu baino lehen.

Aurreko ataletan aipatutako gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ez izateari dagozkion inguruabarrak eskaintzak aurkezteko epemugan bete beharko dira, bai eta kontratua formalizatzen den unean ere.

B gutun-azala.- Proposamen Teknikoa:

Gutun-azal honetan balio-judizioaren bidez baloratuko diren irizpideei buruzko dokumentuak sartuko dira, 18. klausulan zehaztutakoak.

Alderdi horiek memoria tekniko batean jasoko dira, eta horrek ezingo du 20 orrialde baino gehiago eduki. Orrialde kopuru hori gaindituz gero, udalak erabaki dezake 21. orrialdetik aurrera emandako informazioa edo edukia ez baloratzea.

Proposamen teknikoan ezin izango da balio-judizioaren mende dauden alderdiak orientatu edo ezagutarazi dezakeen erreferentziarik sartu. Bestela, proposamena prozeduratik kanpo geratuko da.

C gutun-azala: Eskaintza ekonomikoa eta balio-judizioen mende ez dauden irizpideak:

Zerbitzu bakoitzerako proposamen ekonomikoa aurkezteko, ezinbestekoa da dagokion eranskina aurkeztea:

1. Loterako aurkeztuz gero: dokumentu honen IV. eranskina.
2. Loterako aurkeztuz gero: dokumentu honen V. eranskina.
3. Loterako aurkeztuz gero: dokumentu honen VI. eranskina.
4. Loterako aurkeztuz gero: dokumentu honen VII. eranskina.
5. Loterako aurkeztuz gero: dokumentu honen VIII. eranskina.

Hizkiz eta zenbakiz idatzitako zenbatekoen artean kontraesanik baldin badago, eskaintza baztertu egingo da, baldin eta ezin bada ziurtasunez zehaztu bietako zein den eskainitako benetako prezioa.

Proposamena enpresa-talde batek egiten duenean, talde hori osatzen duten enpresa guztiek sinatu beharko dute proposamena, zuzenean edo ordezkari bitartez.

VI.- PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA

23. KLAUSULA. PROPOSAMENAK IREKITZEA, AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA KALIFIKATZEA ETA PROPOSAMENAK BALIOESTEA.

Kontratu hau **PROZEDURA IREKIAREN** bidez esleituko da.

A eta B gutun-azalen dokumentazioaren kalifikazioa

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denetik gehienez 20 eguneko epearen barruan irekiko dira A eta B gutun-azalak.

Kontratazio-organoak, irekierarako ekitaldi publikoaren data eta ordua argitaratuko ditu kontratatzailearen profilean, lizitazio-iragarkia argitaratzen den unean.

A eta B gutun-azalak ireki baino 5 minutu lehenago, dagokion pdf dokumentuaren irekitze-kodea jakinarazi beharko diote Mahaiari eskaintza-egileek, bestela, lizitaziotik kanpo geratuko da.

Pleguen irekitze-egintza horretan, telematikoki jasotako dokumentazioa kalifikatuko da, baita erkatu ere, eta ondoren – beharrezkotzat hartuz gero – proposamenak baloratzeko txostenak eskatuko dira.

Dokumentazioan akats materialak daudela ikusten bada, hiru egutegi-eguneko epea emango da adierazitako akatsa konpontzeko, eta, hala adagokio, bost eguneko epea argibideak edo dokumentu osagarriak aurkezteko.

Epe horiek jakinaraziko dira lizitazio honetarako emandako helbide elektronikoan; eta bidaltzen diren egunaren ondorengo egunetik aurrera konputatzen hasiko dira.

Horretarako emandako epean enpresak A gutun-azaleko gabeziak osatzeko eskatutako agiriak aurkezten ez baditu, prozesutik baztertuko zaio. B gutun-azalekoak zuzentzen ez baditu, berriz, dagokion irizpidearen araberako baloraziorik ez zaio egingo lizitatzaile horren eskaintzari.

Eskaintzak ebaluatzerakoan, 18. klausulan adierazitako esleitzeko irizpideak kontuan izango dira.

Proposamen hauek ez dira onartuko.

- A gutun-azalean eskatzen den zinpeko aitorpena behar bezala beteta ez egotea, eta zuzentzeko udalak emandako 3 laneguneta, zuzendu ez direnak.

- Kontraesanak, hutsuneak, akatsak edo arau-hausteak direla-eta Administrazioak eskaintza kontuan hartzeko ezinbestekoa duena garbi ikusteko biderik ematen ez dutenak, eta badira zuzendu edo argitu horretarako udalak ematen dien hiru laneguneko epean.

- Lote bakoitzerako proposamen bat baino gehiago aurkezten duten lizitadoreen eskaintzak.

- Irekitzeko kodea eman ez delako edo kode hori okerra delako ireki ezin direnak ireki.

C gutun-azalean sartutako eskaintzak irekitzeko ekitaldi publikoa.

A eta B gutun-azaletako dokumentuen kalifikazioa eta negoziazio-fasea bukatutakoan, Mahaiak kontratistei deialdia egingo die “Eskaintza ekonomikoa eta balio-judizioei lotu gabeko irizpideak” izeneko C gutun-azala irekitzeko ekitaldi publikora bertaratzeko.

Kontratazio-organoak lizitazio-iragarkia argitaratzen den unean argitaratuko du deialdiaren data. Hori bai, data eta ordua aldatu daiteke, eta, kasu horretan, kontratatzailearen profilean behar besteko aurrerapenarekin argitaratuko da irekiera-ekitaldi publikoaren eguna eta ordua, eta lizitazioan parte hartzeko emandako helbide elektronikora jakinaraziko da.

C gutun-azala ireki baino 5 minutu lehenago eskaintzaileek C gutun-azalari dagokion pdf dokumentuaren irekiera-kodea adierazi beharko diote Mahaiari, bestela, lizitaziotik kanpo geratuko da.

Ekitaldi publikoak ondorengo urrats hauek izango ditu:

- Lehenik, A eta B gutun-azaleko ebaluazioaren emaitza jakinaraziko zaie bertaratutakoen, hau da, lizitatzaileren bat kanpo gelditu den eta bakoitzak lortutako puntuazioa. Baita negoziatu den lizitatzaileen izena ere.

- Jarraian, kontratzio-mahaiak C gutun-azalak irekiko ditu, hain zuzen ere, onartuta lizitatzaileen eskaintza ekonomikoa eta baliozkojudizioen menpe ez dauden irizpideak:

- Bilera itxian, kontratazio mahaiak eskaintzen puntuazioak banatuko ditu, aurrez lan-unitate guztientzako proposamenak jasotzen ez dituzten eskaintzak baztertuz, baita lizitazio prezioa gainditzen dutenek ere. Eta ondoren, esleipen-proposamena luzatuko dio kontratazio-organoari, kasu honetan, tokiko gobernu batzarrak.

Kontratazio-organoak edo kontratazio-mahaiak aurkeztutako eskaintzari buruzko argibideak eskatu ahal izango dizkio lizitatzaileari, edo, bestela, akats material nabarmenak zuzendu behar ote diren eskaintza idaztean, betiere tratu-berdintasunaren printzipioa errespetatzen bada eta eskaintzaren terminoak inola ere aldatu ezin badira. Egindako guztia agiri bidez jasoko da administrazio-espedientean. SPKL, 95)

Kontratazio-mahaiak egiten duen esleitzeko proposamenak ez du inolako eskubiderik sortzen proposatutako enpresaburuaren alde, eta ez ditu eskubide horiek eskuratutako administrazioari dagokionez, kontratazio-organoaren erabakiz kontratua esleitzen ez zaion bitartean.

Esleipena egin baino lehen kontratazio-organoak kontratua sinatzeari uko egiten badio edota prozeduran atzera egitea erabakitzen badu, lizitatzaileei ebazpen arrazoitua bidaltzeko jakinarazpenean lizitazio-gastuengatik ordainduko den konpentsazioa adieraziko du.

Adjudikaziodun izateko proposatutako lizitatzaileak lizitazio-prozedura batean parte hartzeko aurretiko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezten duenean, aurkeztutako dokumentazioa kalifikatuko du Mahaiak, eta konpon daitezkeen akatsak antzematen baditu, hiru eguneko epea emango dio horiek zuzentzeko, eta, hala badagokio, bost eguneko epea emango dio azalpenak edo agiri osagarriak aurkezteko.

Interesdunei komunikazioa telematikoki egingo zaie udalaren egoitza elektronikoaren bidez (http://astigarraga.eus/eu/tramiteak), baita lizitazio honetarako emandako helbide elektronikoan ere.

VII.- ESLEIPENA

24. KLAUSULA. ESLEIPENA

Proposamenak irekitzen diren egunetik kontatzen hasi eta bi hilabeteko gehieneko epearen barruan kontratazio-organoak lote bakoitzaren esleipena erabakiko du, eta lizitatzaileei jakinaraziko zaie eta 15 eguneko epearen barruan kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Esleipenaren ebazpenean kalitate-prezioa erlazioan eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko zaio dokumentazioa aurkeztea eta ondorengo klausulan adierazitako aurretiazko betekizunak egiazta ditzala, horretarako 10 egun balioduneko epea emanez.

Errekerimendua behar bezala betetzen ez bada, 3 eguneko epea emango zaio dokumentazioa zuzentzeko, ahal bada.

Adierazitako epean ez badu eskatutakoa egoki bete, lizitatzaileak eskaintza lehiaketatik kendu duela ulertuko da, eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa eskatuko zaio (BEZik gabe) zigor gisa.

Aurreko paragrafoan adierazitako kasuan, dokumentazio berdina eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenari jarraikiz.

Kontratazio-organoak lizitazioa esleitzeke deklaratu ahal izango du, hala dagokionean, kontratazio-mahaiaren proposamenez, klausulen agirian biltzen diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat ez dagoenean.

25. KLAUSULA. AGIRIAK AURKEZTEA ETA ALDEZ AURRETIKO BALDINTZAK EGIAZTATZEA

1. Errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasi eta hamar egun balioduneko epean, ondoren adierazten diren aldez aurretiko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du kalitate-prezio erlazioari dagokionez eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak:

- Enpresariaren nortasuna eta haren jarduera-esparrua egiaztatzen dituen dokumentazioa:

  • Nortasun Agiri Nazionalaren eta agiri horren fotokopia konpultsatua aurkeztuta egiaztatuko dute beren nortasuna pertsona fisikoek.

  • Enpresa pertsona juridikoa balitz, Merkataritza-erregistroan behar bezala inskribatutako eratze- edo aldatze-eskritura aurkeztuta egiaztatu beharko du nortasuna, merkataritza-legeria aplikagarriaren arabera betekizun hori exijitzekoa denean. Betekizun hori exijigarria ez bada, eraketaren edo aldaketaren eskritura edo agiria, estatutuak edo eraketa-egintza, zeinetan jasotzen baitira jarduera erregulatzeko arauak; beharrezkoa bada, erregistro ofizialean inskribatuak Pertsona juridikoak lizitazio honen esleipendun izan ahalko dira, baldin eta prestazioak jasota baldin badaude beren berezko helburu, xede edo jarduera-esparru gisa beren estatutu edo eratze-arauetan; alderdi hori egiaztatuta geratu behar da aurkeztutako dokumentazioan.

Aipatutako agirien jatorrizko aleak edo kopia konpultsatuak aurkeztu behar dira, indarrean dagoen legeriaren arabera egiazkotzat jotzen direnak.

- Ordezkagarritasuna egiaztatzen duten agiriak, hala badagokio:

  - Beste baten ordez aurkezten diren edo proposamenak sinatzen dituztenek, horretarako nahikoa ahalorde dutela egiaztatuko dute.
  - Lizitatzailearen ordezkaritza duen pertsonaren datuak; ahalorde bidez egiaztatu beharko da.

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean edukitzearen frogagiriak.

- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, eta teknikoa edo profesionala. Lizitazio honi dagokionez, ondoren adierazten direnen bitartez egiaztatuko da aipatutako kaudimena:

1. LOTErako (*sexu eta harreman afektiboen zerbitzua*), bitarteko hauek erabiliz:

a).- Enpresaburuaren kaudimena ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzeko

Enpresaburuaren ekonomia- eta finantza-kaudimena arrisku profesionalengatiko erantzukizun zibileko asegurua egin dela (gutxienez 20.000 eurokoa) adierazten duen egiaztagiriaren bitartez egiaztatu beharko da; baita kontratuaren egikaritzapen osoan haren estaldura mantenduko dela bermatzen duen berritze edo luzamendua gauzatzeko konpromisoarekin ere

b).- Kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzeko.

1.- Azken hiru urteetan, gutxienez 18.000,00 euroko (BEZik gabe) lanak fakturatu izana kontratuaren xede diren zerbitzuen izaera bera edo antzerakoak duten zerbitzuengatik

Horretarako, dagokion organo eskudunak eman edo onetsitako ziurtagiriak aurkeztuko dira, hartzailea sektore publikoko erakundea bada; eta hartzailea subjektu pribatua bada, hark emandako ziurtagiria edo, halakorik ezean, enpresaburuaren adierazpena eta emandako zerbitzuengatik egindako fakturen kopia aurkeztu beharko dira.

2.- Zerbitzura atxikitzen den pertsonari eskatzen zaien kaudimena egiaztatzeko agiriak: unibertsitate-tituluaren kopia, sexologian prestakuntza espezifikoaren titulua, lan-esperientzia eta euskararen ezagutzako C1 egiaztagiria, eta sexu-delitugileen Erregistro Zentralean inskribatuta ez egotearen ziurtagiria.

2. LOTErako (*Karpa morea*), bitarteko hauek erabiliz:

a).- Enpresaburuaren kaudimena ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzeko

Enpresaburuaren ekonomia- eta finantza-kaudimena arrisku profesionalengatiko erantzukizun zibileko asegurua egin dela (gutxienez 10.000 eurokoa) adierazten duen egiaztagiriaren bitartez egiaztatu beharko da; baita kontratuaren egikaritzapen osoan haren estaldura mantenduko dela bermatzen duen berritze edo luzamendua gauzatzeko konpromisoarekin ere

b).- Kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzeko.

1.- Azken hiru urteetan, gutxienez 5.000,00 euroko (BEZik gabe) lanak fakturatu izana kontratuaren xede diren zerbitzuen izaera bera edo antzerakoak duten zerbitzuengatik

Horretarako, dagokion organo eskudunak eman edo onetsitako ziurtagiriak aurkeztuko dira, hartzailea sektore publikoko erakundea bada; eta hartzailea subjektu pribatua bada, hark emandako ziurtagiria edo, halakorik ezean, enpresaburuaren adierazpena eta emandako zerbitzuengatik egindako fakturen kopia aurkeztu beharko dira.

2.- Zerbitzura atxikitzen diren pertsonei eskatzen zaien kaudimena egiaztatzeko agiriak: unibertsitate-tituluaren kopia, ikastaroak, lan-esperientzia eta euskararen ezagutzako C1 egiaztagiria, eta sexu-delitugileen Erregistro Zentralean inskribatuta ez egotearen ziurtagiria.

3. LOTErako (*harreman osasuntsuak eta parekideak*), bitarteko hauek erabiliz:

a).- Enpresaburuaren kaudimena ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzeko

Enpresaburuaren ekonomia- eta finantza-kaudimena arrisku profesionalengatiko erantzukizun zibileko asegurua egin dela (gutxienez 30.000 eurokoa) adierazten duen egiaztagiriaren bitartez egiaztatu beharko da; baita kontratuaren egikaritzapen osoan haren estaldura mantenduko dela bermatzen duen berritze edo luzamendua gauzatzeko konpromisoarekin ere

b).- Kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzeko.

1.- Azken hiru urteetan, gutxienez 25.000,00 euroko (BEZik gabe) lanak fakturatu izana kontratuaren xede diren zerbitzuen izaera bera edo antzerakoak duten zerbitzuengatik

Horretarako, dagokion organo eskudunak eman edo onetsitako ziurtagiriak aurkeztuko dira, hartzailea sektore publikoko erakundea bada; eta hartzailea subjektu pribatua bada, hark emandako ziurtagiria edo, halakorik ezean, enpresaburuaren adierazpena eta emandako zerbitzuengatik egindako fakturen kopia aurkeztu beharko dira.

2.- Zerbitzura atxikitzen diren pertsonei eskatzen zaien kaudimena egiaztatzeko agiriak: unibertsitate-tituluaren kopia, sexologian prestakuntza espezifikoaren titulua, lan-esperientzia eta euskararen ezagutzako C1 egiaztagiria, eta sexu-delitugileen Erregistro Zentralean inskribatuta ez egotearen ziurtagiria.

4. LOTErako (*ingurune digitala*), bitarteko hauek erabiliz:

a).- Enpresaburuaren kaudimena ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzeko

Enpresaburuaren ekonomia- eta finantza-kaudimena arrisku profesionalengatiko erantzukizun zibileko asegurua egin dela (gutxienez 10.000 eurokoa) adierazten duen egiaztagiriaren bitartez egiaztatu beharko da; baita kontratuaren egikaritzapen osoan haren estaldura mantenduko dela bermatzen duen berritze edo luzamendua gauzatzeko konpromisoarekin ere

b).- Kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzeko.

1.- Azken hiru urteetan, gutxienez 6.000,00 euroko (BEZik gabe) lanak fakturatu izana kontratuaren xede diren zerbitzuen izaera bera edo antzerakoak duten zerbitzuengatik

Horretarako, dagokion organo eskudunak eman edo onetsitako ziurtagiriak aurkeztuko dira, hartzailea sektore publikoko erakundea bada; eta hartzailea subjektu pribatua bada, hark emandako ziurtagiria edo, halakorik ezean, enpresaburuaren adierazpena eta emandako zerbitzuengatik egindako fakturen kopia aurkeztu beharko dira.

2.- Zerbitzura atxikitzen den pertsonari eskatzen zaien kaudimena egiaztatzeko agiriak: unibertsitate-tituluaren kopia, prestakuntza espezifikoaren titulua, lan-esperientzia eta euskararen ezagutzako C1 egiaztagiria, eta sexu-delitugileen Erregistro Zentralean inskribatuta ez egotearen ziurtagiria.

5. LOTErako (*kontsumo arduratsua eta droga-mendekotasuna*), bitarteko hauek erabiliz:

a).- Enpresaburuaren kaudimena ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzeko

Enpresaburuaren ekonomia- eta finantza-kaudimena arrisku profesionalengatiko erantzukizun zibileko asegurua egin dela (gutxienez 10.000 eurokoa) adierazten duen egiaztagiriaren bitartez egiaztatu beharko da; baita kontratuaren egikaritzapen osoan haren estaldura mantenduko dela bermatzen duen berritze edo luzamendua gauzatzeko konpromisoarekin ere

b).- Kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzeko.

1.- Azken hiru urteetan, gutxienez 2.500,00 euroko (BEZik gabe) lanak fakturatu izana kontratuaren xede diren zerbitzuen izaera bera edo antzerakoak duten zerbitzuengatik

Horretarako, dagokion organo eskudunak eman edo onetsitako ziurtagiriak aurkeztuko dira, hartzailea sektore publikoko erakundea bada; eta hartzailea subjektu pribatua bada, hark emandako ziurtagiria edo, halakorik ezean, enpresaburuaren adierazpena eta emandako zerbitzuengatik egindako fakturen kopia aurkeztu beharko dira.

2.- Zerbitzura atxikitzen den pertsonari eskatzen zaien kaudimena egiaztatzeko agiriak: unibertsitate-tituluaren kopia, prestakuntza espezifikoaren titulua, lan-esperientzia eta euskararen ezagutzako C1 egiaztagiria, eta sexu-delitugileen Erregistro Zentralean inskribatuta ez egotearen ziurtagiria.

Kontratista enpresa sortu berria denean, hau da, bost urte baino gutxiagoko antzinatasuna duenean, gaitasun teknikoa bere lan-ekipoaren gaitasun teknikoaren arabera egiaztatuko da.

- Behin betiko bermea eratu izanaren frogagiria

- Atzerriko lizitatzaileek adierazpena aurkeztuko dute, zuzenean edo zeharka kontratutik sor daitezkeen gorabeheretarako, Espainiako edozein lege-arlotako Epaitegiren eta Auzitegiren jurisdikziopean jartzen direla esanez, eta, hala balegokio, dagokiekeen atzerriko jurisdikzio-foruari berariaz uko eginez.

2. Aurkeztutako dokumentazioan zuzen daitezkeen akatsak edo omisioak ikusiko balira, lizitatzaileari jakinaraziko litzaioke, eta hiru egun balioduneko gehienezko epea emango litzaioke akats edo omisio horiek kontratuaren arduradunaren aurrean zuzen ditzan.

3. Errekerimendu hori ez bada betetzen dokumentazioa aurkezteko emandako epean, lizitatzaileak bere eskaintza bertan behera utzi duela ulertuko da eta, kasu horretan, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeran, hurrengo postuan geratu den lizitatzailearen dokumentazioa aztertuko da.

26. KLAUSULA. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA.

Kontratua formalizatzen denean burutuko da.

Kontratua lizitazioaren baldintzetara zehazki egokituko den administrazio-dokumentu batean formalizatu beharko da, eta gainera eskritura publikoan formalizatu ahal izango da kontratistak hala eskatzen badu, sinaduratik eratortzen diren gastuak haren kargura izanik.

Kasu horretan, kontratistak Administrazioari aipatu dokumentuaren kopia legitimatu bat eta kopia arrunt bat entregatu beharko ditu formalizatzen denetik kontatzen hasi eta hilabeteko epearen barruan.

Kontratua formalizatu behar da, beranduenez ere, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 151. artikuluan aurreikusitako moduan lizitatzaileei esleipenaren jakinarazpena helarazten zaien egunetik zenbatzen hasi eta **hamabost egun balioduneko** epearen barruan.

SPKLren 153.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta kontratua adierazi den epearen barnean formalizatu ez bada, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa eskatuko zaio (BEZik gabe) zigor gisa, lehenik eta behin betiko bermearen kontura horrelakorik eratu bada, SPKLren 71. artikuluko 2. idatz-zatiaren b) letran ezarritakoa alde batera utzi gabe.

27. KLAUSULA. UKO ETA ATZERA EGITEA.

Kontratazio-organoak erabakitzen badu esleipen-prozedurari uko egitea edo deialdiaren xede den loteren baten kontratua ez esleitzea edo egitea erabakitzen badu, erabaki horren berri emango die izangaiei edo lizitatzaileei, bai eta Europako Batzordeari ere.

Kontratua formalizatu aurretik erabaki ahal izango du kontratazio-organoak kontratua ez esleitzea edo egitea, edo prozedurari uko egitea. Kasu horietan, egin dituzten gastuak konpentsatuko zaizkie lizitazioan parte hartzeko gai diren izangaiei edo lizitatzaileei, baldin eta gastu horiek behar bezala justifikatuta baldin badaude eta, hori horrela izan ezean, Administrazioaren ondare-erantzukizuna kalkulatzeko erabiltzen diren balorazio-irizpideen arabera, administrazio-prozedura erkidearen tramiteen bitartez.

Interes publikoko arrazoiengatik bakarrik erabaki ahal izango da kontratua ez esleitzea edo egitea, eta behar bezala justifikatu beharko dira arrazoiok espedientean. Kasu horretan, ezin izango da xede bereko beste lizitaziorik sustatu, baldin eta erabakiaren oinarri gisa alegatutako arrazoiek irauten badute.

Prozedurari uko egiteko erabakia kontratua prestatzeko arauen edo esleipen-prozedura arautzen duten arauen zuzen ezin daitekeen arau-hauste batean oinarrituta egon behar da, eta espedientean justifikatu egin beharko da arrazoia. Prozedurari uko egiteko erabakia hartzeak ez du eragotziko berehala beste lizitazio-prozedura bat hastea.

VI.- KONTRATUA GAUZATZEA

28. KLAUSULA. JARRAIPENA ETA KONTROLA

Prozedura honen ohiko jarraipena eta kontrola Kontratazio Mahaiak egingo du. Hala ere, SPKLren 62. artikuluaren ondorioetarako, Udalak kontratuaren arduradun bat izendatuko

du, eta haren helburua izango da hitzartutako prestazioa behar bezala gauzatzen dela ziurtatzea, honako eginkizun hauek betez:

a) Kontratuaren xedea betetzerakoan sor litekeen edozein gorabehera konpontzeko beharrezko diren batzarrak sustatzea eta deitzea, interes publikoari ondoen datozkion baldintzetan.

b) Kontratua egikaritzerakoan sortutako gorabeherak konpontzea, Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu orokorra onesten duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren (aurrerantzean, HAKLEO) 97. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki.

c) Kalte-galerak erreklamatzeko eta behin betiko bermea konfiskatzeko espedienteetan txostenak egitea.

d) Zerbitzuak partzialki eta/edo osorik jaso aurretik, txostenak egitea.

e) Bermeak itzultzeko edo ezerezteko espedientetan, txostenak egitea.

f) Berme-epearen betetze-mailaren berri ematea.

g) Kontratua egikaritzeko ezarritako baldintza berezi eta funtsezkoen betetze-mailaren berri ematea.

h) Kontratatutako prestazioak ondo egikaritu izanari buruzko ziurtagiriak emateko txostenak egitea.

i) Kasu bakoitzean dagozkion ildo nagusiak ezartzea; esleipendunari edozein unetan eskatu ahal izango zaio kontratuaren xedearen egikaritze-egoerari, esleipendunaren betebeharrei eta epeen eta jarduketen betetze-mailari buruzko beharrezko informazioa.

j) Hitzartutakoa behar bezala garatzea lortzeko edo egoera hori berrezartzeko beharrezko neurriak adostea premiazko beharra dagoenean, edo kontratistak, edo haren mende dauden pertsonek, kontratua behar bezala egikaritzea oztopatzen duten egintzak edo egintzarik ezak egiten dituztenean, horren berri eman beharko zaiolarik kontratazio-organoari.

k) Prestazioaren egikaritza bertan behera uztea proposatzea eta horren berri ematea.

l) Zerbitzuak hartzeko egintzetara joatea, eta betetze-mailarekiko adostasuna edo adostasunik eza egiaztatzen duten Harrera-aktak izenpetzea.

m) Kontratistari jarraibideak ematea, beti ere ez badute kontratuaren xedea aldatzen eta ez badira indarrean dauden xedapenen edo Pleguetako eta gainerako kontratu-agirietako xedapenetatik eratorritakoen aurkakoak.

29. KLAUSULA.- KONTRATUA GAUZATZEA

1.- Kontratua gauzatuko da baldintza-agiri honetan eta plegu teknikoetan jasotako klausulen arabera eta, hala badagokio, espedienteari erantsitako zehaztapen teknikoen

arabera, Administrazioaren zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrolaren pean. Administrazioak idatziz zein ahoz gauzatuko ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo haren mendeko pertsonei egotz dakizkiekeen egite edo ez-egiteengatik kontratuaren martxa ona arriskuan jartzen bada, Administrazioak kontratua behar bezala gauzatzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko eskatu ahal izango du.

2.- Esleipendunak agindutako lanak behar bezala egiteko behar diren ekipoak, baliabide materialak eta giza baliabideak jarri beharko ditu, eta bere gain hartu beharko ditu langile horien mendekotasunaren ondoriozko kostu guztiak. Langile horiek ez dute inolako administrazio-loturarik edo lan-loturarik izango Udalarekin, eta Udalak ez du inolako erantzukizunik izango enpresaren eta langile horien arteko harremanen ondorioz. Lanera ez joate guztiak bete beharko ditu, kontratua gauzatu bitartean sortzen diren bajak eta oporrak barne.

Ezinbestekoa da, esleipendunak eskaintzan izendatutako talde teknikoa (A gutun-azalean dago jasota) izendatzea zerbitzua emateko, eta kontratua exekutatu bitartean hori edo horietako bat ordeztu nahi bada – ezinbesteko arrazoiengatik –, aldez aurretik baimena lortu beharko da.

Kontratua gauzatzeko teknikari bat baino gehiago izendatu bada, enpresa esleipendunak koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatu beharko du.

3.- Enpresa kontratistak kontratua gauzatzean hirugarrenei eragindako kalte pertsonal zein materialen erantzukizuna izango du. Ondorio horietarako, Udala ere hirugarrentzat hartuko da.

Kontratua gauzatzen den bitartean, enpresa esleipendunak zenbateko hauetako erantzukizun zibileko asegurua eduki beharko du kontratuaren indarraldian:

1. lotearen (*herritarrentzako sexu eta harreman afektiboak*) kasuan, 100.000,00 €
2. lotearen (*Karpa morea*) kasuan, 30.000,00 €
3. lotearen (*harreman osasuntsuak eta parekideak*) kasuan, 150.000,00 €
4. lotearen (*ingurune digitala*) kasuan, 50.000,00 €
5. lotearen (*kontsumo arduratsua eta droga-mendekotasuna*) kasuan, 25.000,00 €

4.- Kontratistak, baldintza teknikoetan ezarritako betebeharrez gain, honako hauek ere ditu:

• Beharrezkotzat jotzen diren lan- edo informazio-bilera guztietara joatea.

• Programari atxikitako langileen plantillan edozein aldaketa izanez gero, kontratu arduradunari jakinaraztea, ahalik eta lasterren eta aldaketa gertatu baino lehen, eta, nolanahi ere, hasierako eskaintzan proposatutako profilaren antzekoarekin ordezkatuko da, ezinbestekoa izanik kaudimen baldintzak betetzea.

• Kontratuari atxikituko langileen gaixotasun-bajak kontratuaren arduradunari eta zerbitzuen erabiltzaileei gehienez ere 24 orduko epean jakinaraztea.

5.- Baldintza-agiri honetan kontratatzen den zerbitzuaren tipologiagatik, ezin da zerbitzuaren zati bat azpikontratatu. Aitzitik, kontratutik eratorritako eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango zaizkio, betiere SPKLn ezarritako baldintzak betetzen badira.

30. KLAUSULA.- KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

1.- Kontratistak lanaren eta gizarte-segurantzaren alorrean indarrean dagoen araudia bete behar du nahitaez. Era berean, 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, pertsona desgaituen eskubideei eta gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onesten duena, 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa, uztailaren 12ko 15/2022 Legea, tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerakoari buruzkoa, 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzkoa, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onartutako Prebentzio Zerbitzuen Araudia, eta kontratua egikaritzen den bitartean promulgatzen diren arauak bete beharko ditu nahitaez.

Betebehar horiek ez betetzearen ondoriozko erantzukizun guztiak kontratistari egotziko zaizkio.

2.- Enpresa kontratistak enpresaburu orori atxikitako zuzendaritza-ahalmena benetan, modu eraginkorrean eta etengabe baliatzeko betebeharra hartzen du bere gain, kontratua egikaritzeaz arduratzen den lantaldeko langile guztiei dagokienez. Bereziki, bere betebehar izango dira honako hauek: soldatak negoziatu eta ordaintzea; baimen, lizentzia eta oporrak ematea; bajarik edo absentziarik izanez gero, ordezkoak jartzea; Gizarte Segurantzari dagozkion legezko betebeharrak betetzea, kotizazioak eta prestazioak ordaintzea ere barnean hartuta, dagokionean; lan-arriskuen prebentzioaren arloko legezko betebeharrak betetzea; diziplina-ahala baliatzea; eta enplegu-emailearen eta enplegatuaren arteko kontratu-loturatik ondorioztatutako eskubide eta betebehar guztiak.

Esleipendunak, kontratuaren arduradunari adierazi beharko dio zer hitzarmen kolektibo aplikatu zaien kontratuaren xedeko jarduera egiten duten langileei.

Udalak inola ere ez du bere gain hartuko kontratua egikaritzeko kontratistak dituen langileekiko lan-harremana, ezta bestelako erantzukizunik ere.

3.- baldintza linguistikoak

Baldintza teknikoen 3. klausulan jasotako hizkuntza irizpideak bete beharko dira. Horiek kontratuaren funtsezko betebeharrak dira da, eta ez betetzeak zigorrak aplikatzea edo kontratua indargabetzea dakar.

4.- berdintasun arloko baldintzak:

Baldintza teknikoen 4. klausulan jasotako berdintasun arloko baldintza bete beharko ditu esleipendunak. Horiek kontratuaren funtsezko betebeharrak dira, eta ez betetzeak zigorrak aplikatzea edo kontratua indargabetzea dakar.

5.- Zerbitzu erabiltzaileen datu pertsonal babesteko neurriak

Kontratuak betetzen diren bitartean izaera pertsonaleko datuetan sartu ahal izateko, adjudikaziodunak bete beharko ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendutik (EB) eratorritako betebeharrak. Pertsona fisikoen babesa arautzen du erregelamendu horrek datu pertsonalen tratamenduari eta zirkulazio askeari dagokienez, eta 95/46/EE (Datuak babesteko erregelamendu orokorra) Zuzentaraua indargabetu du; baita ere Eskubide Digitalen Bermerako eta Datuak Babesteko 3/2018 Lege Organikoa.

Bereziki, enpresa esleipendunek bere gain hartzen dute Udalak ematen dizkion izaera pertsonaleko datuak Udalak emandako jarraibideen arabera tratatzeko, kontratu honetan azaltzen den helburua ez den beste edozertarako ez erabiltzeko edo aplikatzeko, eta beste pertsona batzuei ez komunikatzeko –ezta datuok kontserbatzeko ere– konpromisoa. Enpresa esleipendunek izaera pertsonaleko datuak Udalari itzultzeko eta bere esku dauden datuon kopia guztiak suntsitzeko konpromisoa hartzen dute, behin kontratu-harremana amaitzen denean.

Esleipendunak kontratu bat sinatuko du datuak hirugarrenen bidez tratatzeko, eduki hauekin:

- Lehen hitzorduan erabiltzailearen datu pertsonalak jasoko ditu. Inprimaki berean erabiltzaileari datuen tratamenduari eta arlo horretan dituen eskubideen berri emango dio, ahoz eta idatziz. Erabiltzaileak lehen saioan ontzat eman behar du datuak tratatzeko baimena.
- Datuen tratamenduaren kontratuan zehaztuko da zein datu pertsonal tratatuko diren eta nola.
- Esleipendunak datu horien segurtasuna eta konfidentzialtasuna bermatzeko neurriak hartu beharko ditu, antolakuntzazkoak nahiz teknikoak.
- Kontratua amaitu ondoren datu guztiak Udalari itzuliko dizkio.
- Esleipendunak datu horiek soilik erabiliko ditu kontratatutako zerbitzua eskaintzeko.
- Esleipendunak ez dikzio datu horiek inori eman edo lagako eta ez ditu inola ere erabiliko kontratuan zehazten ez diren bestelako jardun profesionaletarako.

31. KLAUSULA.- ZIGORRAK

Esleipendunek, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan zehaztuak dauden zerbitzuen egikaritzea beteko ez balute, Udalak bi aukera ditu: edo kontratua suntsiaraztea edota bete gabeko zerbitzuaren kostearen %100ari dagokion zigorra jartzea.

Gainera, kontratuaren prezioaren % 10erainoko zigorrak ezarri ahal izango ditu Udalak dira honako arrazoi hauengatik:

- Kontratua gaizki betetzea.
- Zehaztutako epean zerbitzua ematen ez hastea edo geldiaraztea, ezinbesteko kasua denean izan ezik.
- Zerbitzua emateko ordutegia ez betetzea, edota behin eta berriz eta sistematikoki atzeratzea.
- Eskainitako lantaldearen adskripzio-betebeharra ez betetzea.
- Udalarekin edo zerbitzuaren erabiltzaileekin ezarritako hitzorduetara justifikaziorik gabe ez joatea.
- Udalak kontratatutako langileen eskura jarritako baliabide materialak eta azpiegiturak oker erabiltzea.
- Kontratuaren baldintza bereziak ez betetzea: langileen gaixotasun-bajak ordezkatzeko betebeharra eta udalari horren berri ematearena, berdintasun baldintzak, ingurumen baldintzak, izaera pertsonaleko datuen babesa…
- Langileak baldintzatzat duen bateraezintasuna ez betetzea.
- Plegu teknikoan zein agiri honetan ezarritako beste edozein betebehar ez betetzea.

Zehapenak Alkatetzak ezarriko ditu, interesdunari entzun ondoren. Eta ordaintzeko, esleipendunak kontratuaren prezio gisa jaso behar duen hileko fakturari kenduko zaio zenbatekoa, eta, horrekin nahikoa ez bada, hainbat hileko fakturari edo jarritako fidantzari. Azken kasu horretan, esleipendunak fidantza berriz jarri beharko du; gainera, fidantza betearazteak eragindako gastu guztiak bere kontura izango dira.

32. KLAUSULA. UDALAREN ESKUMENAK

Udalari dagozkio hainbat eskumen, hala nola kontratua interpretatzea, kontratuaren betearazpenak eskaintzen dituen zalantzak argitzea, interes publikoko arrazoiak direla-eta aldatzea, kontratua egikaritzearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna deklaratzea, kontratuaren egikaritzapena etetea, kontratuaren suntsiarazpena erabakitzea eta suntsiarazpen horren ondorioak zehaztea, betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritako mugen barruan eta eskakizun eta ondorioei jarraikiz.

Era berean, kontratua egikaritzen den bitartean kontratistek garatutako jarduerak ikuskatzeko ahalmenak ditu kontratazio-organoak, aipatu Legean kontratu mota bakoitzerako ezarritako moduan eta mugekin.

Eskumen horiei buruzko erabakiak hartzeko gauzatzen diren prozeduretan kontratistari entzunaldia eman beharko zaio.

Hartarako emandako erabakiek administrazio-bidea agortuko dute, eta berehala betearazi beharrekoak izango dira.

33. KLAUSULA.- KONTRATUA ALDATZEA

SPKLren 204. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren ondorioetarako, ohartarazten da kontratuak hasierako prezioaren % 20ra arteko aldaketak izan ditzakeela, arrazoi honengatik:

1. lotearen (*herritarrentzako sexu eta harreman afektiboak*) kasuan:

• Zerbitzua emateko aurreikusitako orduak gehitzea, eskaera handitzeari aurre egin behar zaiolako.
• 1. lotearen kasuan zerbitzuaren egutegia eta ordutegi aldatzea edo zabaltzea.

Baldintza teknikoen agiriko 2.1.1. klausulan agertzen den gai-zerrendaz aparte besteren bat lantzea ez da kontratu-aldaketatzat hartuko.

2. lotearen(*Karpa morea*) kasuan,

- Zerbitzua emateko aurreikusitako orduak gehitzea
- zerbitzuaren egutegia aldatzea edo zabaltzea.

3. lotearen (*harreman osasuntsuak eta parekideak*) kasuan,

- Hezkuntza-komunitatean eman beharreko orduak gehitzea eta murriztea, ikasle talde gehiago edo gutxiago egoteagatik.
- zerbitzuaren egutegia aldatzea.

4. lotearen(*ingurune digitala*) kasuan,

- Hezkuntza-komunitatean eman beharreko orduak gehitzea eta murriztea, ikasle talde gehiago edo gutxiago egoteagatik.

Baldintza teknikoen agiriko 2.4.2.1 klausulan agertzen den gai-zerrendaz aparte besteren bat lantzea ez da kontratu-aldaketatzat hartuko.

5. lotearen (*kontsumo arduratsua eta droga-mendekotasuna*) kasuan,

- Hezkuntza-komunitatean eman beharreko orduak gehitzea eta murriztea, ikasle talde gehiago edo gutxiago egoteagatik.

Kontratu-aldaketa horiek kontratuaren arduradunaren txostenarekin hasiko dira eta alkatearen dekretuz ebatziko dira, esleipendunari hiru eguneko entzunaldia eman ondoren.

Zerrendatutako arrazoetatik kanpo, interes publikoko arrazoiengatik soilik sartu ahal izango dira aldaketak, eta ezarritako lege-prozedura izapidetu ondoren, baldin eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 205.2 artikuluan tasatutako kasu baten edo batzuen presentzia behar bezala justifikatzen bada, eta hori beharrezko egiten duen arrazoi objektiboari erantzuteko ezinbestekoak diren aldaketak soilik ezartzen badira. interes publikoko arrazoiengatik soilik sartu ahal izango dira aldaketak, eta ezarritako lege-prozedura izapidetu ondoren, baldin eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 205.2 artikuluan tasatutako kasu baten edo batzuen presentzia behar bezala justifikatzen bada, eta hori beharrezko egiten duen arrazoi objektiboari erantzuteko ezinbestekoak diren aldaketak soilik ezartzen badira.

Kontratazio-organoak erabakitako aldaketak nahitaezkoak izango dira enpresa kontratistarentzat, salbu eta 205. artikuluan kontratua aldatzeari dagokionez jasotako kasuetan. Horrelakoetan nahitaezkoak izango dira, soil-soilik, bakarka edo batera hartuta zenbatekoan eragiten duten aldaketak kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20 gainditzen ez badute, BEZa aparte utzita.

34. KLAUSULA.- KONTRATUA SUNTSITZEA.

Kontratua suntsitzeko arrazoi izango dira SPKLaren Testuaren 211. eta 313. artikuluetan ezarritakoak.

Halaber, suntsiarazteko arrazoi izan daitezke:

- Kontratuaren xedea gaizki gauzatzea.
- Eskaintzan adierazitako giza baliabideak kontratua gauzatzeko erabiltzeko edo atxikitzeko konpromisoa ez betetzea.
- Kontratua gauzatzeko baldintzak behin eta berriz ez betetzea; kontzeptu beragatik kontratuaren prezioaren % 50ean zigorrak ezartzea ez-betetze errepikatutzat joko da.
- Zehapenak edo kalte-ordainketak bermetik gauzatzen badira, udalak horretarako emandako epean bermea ez berrezartzea edo handitzea.
- Enpresaren edota lan taldeak bateraezintasun baldintza ez betetzea, salbu eta arrazoi berarengatik zehapena jarri bada..
- Esleipendunaren ezintasun teknikoa zerbitzuaren prestazioak betetzeko.
- Kontratuaren funtsezko baldintzak ez betetzea, salbu eta arrazoi berarengatik zehapena jarri bada.
- Zerbitzua 3 aldiz eman gabe uztea, ezinbesteko kasutan izan ezik. Ez da ezinbesteko kasutzat hartuko kontratuari atxikitako langilearen gaixotasun-baja 2. egunetik aurrera.

35. KLAUSULA.- BERME ALDIA ETA BEHIN BETIKO BERMEA ITZULTZEA.

Prestazioa eman eta, gehienez, 30 egun pasa baino lehen, zerbitzuaren harrera formala egingo da.

Era berean, urtebeteko epea ezarri da, harrera formala egiten den egunetik hasita, berme gisa ezarri dena kontratu legean jasota datozen ondorioetarako, bai eta ezarri den bateraezintasun baldintzak betetzeko ere.

Berme epean kontratistaren kargu joango lirateke lanetan eta egindako prestazio guztietan ager daitezkeen akats eta ikusiezinezko akats guztiak.

Epe hori igarotzen bada, Udalak inongo eragozpenik jarri gabe, kontratistaren erantzukizuna amaitu egingo da, eta bermea itzuliko da.

36. KLAUSULA.- ESKUMENEKO JURISDIKZIOA

Kontratu honen ondoriozko gai eztabaidatsuak kontratazio-organoak ebatziko ditu, eta hartzen dituen erabakiek amaiera emango diote administrazio-bideari .

Administrazio-bideari amaiera jartzen dioten eta berehala betetzekoak diren egintzak errekurritu egin ahal izango dira, hilabeteko epean berraztetze errekurtsoaren bitartez (udalean bertan) edo bi hilabeteko epearen barruan, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarrita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitako moduan.

Auziren bat egongo balitz, esleipendunak bere foru jurisdikzionalari espreski uko eginez, Gipuzkoako Epaitegi eta Auzitegitara jotzeko konpromezua adierazten du.

I. eranskina - Erantzukizunpeko adierazpenaren eredua

……..jaunak/andreak, helbidea ……..……eta ……..zenbakidun NAN agiria duenak, norbere izenean edo …… gisa (adierazi ordezkaritzaren ahalmenak; administrari bakarra, apoderatua…), helbidea …….. eta …….zenbakidun IFK duen …….enpresaren ordezkari gisa, lizitazioan parte hartzeko, Oñatiko Udalaren aurrean,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU, BERE ERANTZUKIZUNPEAN

LEHENENGOA. HARREMAN OSASUNTSUAK ETA PAREKIDEAK ERAIKITZEKO, DROGA-MENDEKOTASUNARI ETA INDARKERIA MATXISTARI BEGIRAKO PREBENTZIORAKO SENTSIBILIZAZIO-, FORMAKUNTZA- ETA AHOLKULARITZA ZERBITZUKO ..... LOTEAREN kontratazioan parte hartzera doala

BIGARRENA. 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen espainiar ordenamendu juridikorako transposizioa egiten duen Sektore Publikoko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 140. artikuluaren lehenengo atalak zerbitzu-kontratuaren esleipendun izateko exijitzen dituen aurretiazko eskakizun guztiak betetzen dituela; honako hauek, hain zuzen ere:

- Dagokion sailkapena duela edo exijitzen diren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko eskakizunak betetzen dituela.
- Pertsona juridikoa bada, sozietatea baliozko moduan eratuta dagoela eta, sozietatearen helburuaren arabera, lizitaziora aurkez daitekeela, eta adierazpenaren sinatzaileak dagokion ordezkagarritasuna duela proposamena aurkezteko.
- Ez duela bere kabuz edo hedapenez kontratatzeko debekurik, SPKLaren 71.3 artikulua aplikatzearen ondorioz, eta indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.
- Atzerriko enpresen kasuan, zuzenean edo zeharka kontratutik sor daitezkeen gorabeheretarako, Espainiako edozein lege-arlotako Epaitegiren eta Auzitegiren jurisdikziopean jartzen direla, eta, hala balegokio, lizitatzaileei dagokiekeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko eginez.
- Honako hau dela jakinarazpenetarako helbide elektronikoa: ……

HIRUGARRENA. Adierazpen honen bigarren atalean aipatzen diren agiriak badituela eta horiek baliozkoak direla egiaztatzeko konpromisoa hartzen duela, esleipendun gisa proposatzen badute edo horretarako errekerimendua egiten dioten edozein unetan.

LAUGARRENA.- Kontratua egikaritzeko eskatzen den gutxieneko lan-taldea atxikitzeko konpromisoa hartzen dudal, eta horretarako jarraian adierazten den laguna edo diren lagunak izandatzen ditudala, eskatzen den kaudimena dutenak:

Izen-abizenak

1.-

2.-

Eta hori jasota gera dadin, honako adierazpen hau sinatzen dut.

……n, ...(e)ko .....ren ....(e)(a)n.

Sinadura (sinadura eta enpresaren zigilua)

II. eranskina: Kanpoko baliabideak (A kartazala)

ZINPEKO DEKLARAZIOA, ESKATUTAKO KAUDIMENA EDO BALIABIDEAK BERMATZEKO, LIZITATZAILEAK BESTE ERAKUNDE BATZUEN KAUDIMENEAN EDO BALIABIDEETAN OINARRITU NAHI DUEN KASUETARAKO

..... jaunak/andreak, helbidea ..... duenak eta .....NAN zenbakia daukanak, ... enpresaren legezko ordezkari gisa, helbidea ..... duenak eta ..... NAN edo IFZ duenak, adierazten du ASTIGARRAGAKO UDALAREN lizitazioko baldintzak eta horien ondorio guztiak ezagutzen dituela, **HARREMAN OSASUNTSUAK ETA PAREKIDEAK ERAIKITZEKO, DROGA-MENDEKOTASUNARI ETA INDARKERIA MATXISTARI BEGIRAKO PREBENTZIORAKO SENTSIBILIZAZIO-, FORMAKUNTZA- ETA AHOLKULARITZA ZERBITZUKO ..... LOTEAREN** zerbitzua kontratatzeari buruzkoak, non ..... [*lizitatzailearen izena*] lizitatzaile moduan lehiatzen den, eta adierazten du badituela eskatutako kaudimena eta baliabideak –lizitatzailea esleipendun suertatuz gero frogatu egin beharko du– eta bere borondate atzeraezina adierazten du kontratuaren esleipendun gertatzen bada aipatutako lizitatzailearen esku jartzeko kontratua betetzeko beharrezkoak diren baliabideak, Kode Zibilaren 1.257. artikuluko 2. atalean xedatutakoa esanbidez onartu eta bere ordezkapena edo aldaketa Astigarragako Udalak esanbidez baimendu beharko duelarik.

Idazki hau Astigarragako Udalaren aurrean aurkezteak konpromiso hori onartzea ekarriko du, delako lizitatzailea kontratuaren esleipenduna suertatzen den kasuan.

……n, ...(e)ko .....ren ....(e)(a)n.

Sinadura (sinadura eta enpresaren zigilua)

III. ERANSKINA - ALDI BATERAKO ENPRESA-ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA

……..jaunak/andreak, helbidea ……..……eta ……..zenbakidun NAN agiria duenak, norbere izenean edo ……. gisa (adierazi ordezkaritzaren ahalmenak; administrari bakarra, apoderatua…), helbidea …….. eta …….zenbakidun IFK duen …….enpresaren ordezkari gisa ETA ……..jaunak/andreak, helbidea ……..……eta ……..zenbakidun NAN agiria duenak, norbere izenean edo ……. gisa (adierazi ordezkaritzaren ahalmenak; administrari bakarra, apoderatua…), helbidea …….. eta …….zenbakidun IFK duen …….enpresaren ordezkari gisa

HONAKOA ADIERAZTEN DUTE

Aldi Baterako Enpresa-elkarte gisa formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela, % …(e)ko eta % …(e)ko partaidetzekin hurrenez hurren, eta …….. jauna/andrea izendatzen dutela kontratuaren ondoriozko eskubideak erabiltzeko eta betebeharrak betetzeko behar adinako ahalordedun elkartearen ordezkari edo apoderatu bakar, kontratua azkentzen den arte.

Eta .....n ....(e)ko .....ren ...(e)(a)n egiten dugun adierazpen honekiko adostasuna erakusteko

Izp.: Izp.:

Enpresaren zigilua Enpresaren zigilua

IV. eranskina: Proposamen-ekonomikoaren eredua (C gutun-azala)

Nik, ... jaunak (helbidea: ....PK:....., NAN: ....., telefono-zenbakia: ....., eta posta elektronikoko helbidea: .....) prozedura osoa Udalari jakinarazteko, nire gaitasun juridikoaren eta jarduteko nire gaitasunaren jabe oso izanik, nire izenean (edo ……. jauna/andrearen PK:……, telefono-zenbakia: ……., eta NAN edo IFK: …….. -bata ala bestea, pertsona fisikoa ala juridikoa izan- ordezkari gisa), **HARREMAN OSASUNTSUAK ETA PAREKIDEAK ERAIKITZEKO, DROGA-MENDEKOTASUNARI ETA INDARKERIA MATXISTARI BEGIRAKO PREBENTZIORAKO SENTSIBILIZAZIO-, FORMAKUNTZA- ETA AHOLKULARITZA ZERBITZUKO 1. LOTEA (*herritarrentzako sexu eta harreman afektiboak*)** kontratatzeko Astigarragako Udalak deitu duen lehiaketaren berri izanik, honako hau

ADIERAZTEN DUT:

1) Zerbitzua (**esleitzen denetik 2025eko abuztuaren 31 arte**) prezio honetan egiteko konpromisoa hartzen dudala:

lizitazio-prezioa (BEZik gabe)	**Egiten duen eskaintza: BEZik gabe**	Baja zifra absolututan	Baja (%)
17.640,00 €			

Eskaintza ekonomikoa, BEZik gabe .....EURO dela

Eskaintza hori lizitazio-prezioari dagokionez, BEZik gabe, ...euroko baja dela, hots, % .....

Sinadura

V. eranskina: Proposamen-ekonomikoaren eredua (C gutun-azala)

Nik, ... jaunak (helbidea: ....PK:....., NAN: ....., telefono-zenbakia: ....., eta posta elektronikoko helbidea: …..) prozedura osoa Udalari jakinarazteko, nire gaitasun juridikoaren eta jarduteko nire gaitasunaren jabe oso izanik, nire izenean (edo ……. jauna/andrearen PK:……, telefono-zenbakia: …….., eta NAN edo IFK: …….. -bata ala bestea, pertsona fisikoa ala juridikoa izan- ordezkari gisa), **HARREMAN OSASUNTSUAK ETA PAREKIDEAK ERAIKITZEKO, DROGA-MENDEKOTASUNARI ETA INDARKERIA MATXISTARI BEGIRAKO PREBENTZIORAKO SENTSIBILIZAZIO-, FORMAKUNTZA- ETA AHOLKULARITZA ZERBITZUKO 2. LOTEA (*Karpa morea*)** kontratatzeko Astigarragako Udalak deitu duen lehiaketaren berri izanik, honako hau

ADIERAZTEN DUT:

1) Zerbitzua (**esleitzen denetik 2025eko abuztuaren 31 arte**) prezio honetan egiteko konpromisoa hartzen dudala:

lizitazio-prezioa (BEZik gabe)	**Egiten duen eskaintza: URTEKO PREZIOA BEZik gabe**	Baja zifra absolututan	Baja (%)
4.900,00 €			

Eskaintza ekonomikoa, BEZik gabe .....EURO dela

Eskaintza hori lizitazio-prezioari dagokionez, BEZik gabe, …….euroko baja dela, hots, % .....

Sinadura

VI. eranskina: Proposamen-ekonomikoaren eredua (C gutun-azala)

Nik, ... jaunak (helbidea: ....PK:....., NAN: ....., telefono-zenbakia: ....., eta posta elektronikoko helbidea: .....) prozedura osoa Udalari jakinarazteko, nire gaitasun juridikoaren eta jarduteko nire gaitasunaren jabe oso izanik, nire izenean (edo ……. jauna/andrearen PK:……, telefono-zenbakia: ……., eta NAN edo IFK: …….. -bata ala bestea, pertsona fisikoa ala juridikoa izan- ordezkari gisa), **HARREMAN OSASUNTSUAK ETA PAREKIDEAK ERAIKITZEKO, DROGA-MENDEKOTASUNARI ETA INDARKERIA MATXISTARI BEGIRAKO PREBENTZIORAKO SENTSIBILIZAZIO-, FORMAKUNTZA- ETA AHOLKULARITZA ZERBITZUKO 3. LOTEA (*harreman osasuntsuak eta parekideak*)** kontratatzeko Astigarragako Udalak deitu duen lehiaketaren berri izanik, honako hau

ADIERAZTEN DUT:

1) Zerbitzua orduko prezio honetan egiteko konpromisoa hartzen duda:

Lizitazioako orduko prezio (BEZik gabe)	**Eskaintzen den orduko prezioa (BEZik gabe)**	Baja zifra absolututan	Baja (%)
65,00 euro			

Eskaintza ekonomikoa, BEZik gabe .....EURO dela

Eskaintza hori lizitazio-prezioari dagokionez, BEZik gabe, ...euroko baja dela, hots, % .....

Sinadura

VII. eranskina: Proposamen-ekonomikoaren eredua (C gutun-azala)

Nik, ... jaunak (helbidea: ....PK:....., NAN: ....., telefono-zenbakia: ....., eta posta elektronikoko helbidea: .....) prozedura osoa Udalari jakinarazteko, nire gaitasun juridikoaren eta jarduteko nire gaitasunaren jabe oso izanik, nire izenean (edo ……. jauna/andrearen PK:……, telefono-zenbakia: ……., eta NAN edo IFK: …….. -bata ala bestea, pertsona fisikoa ala juridikoa izan- ordezkari gisa), **HARREMAN OSASUNTSUAK ETA PAREKIDEAK ERAIKITZEKO, DROGA-MENDEKOTASUNARI ETA INDARKERIA MATXISTARI BEGIRAKO PREBENTZIORAKO SENTSIBILIZAZIO-, FORMAKUNTZA- ETA AHOLKULARITZA ZERBITZUKO 4. LOTEA (*ingurune digitala*)** kontratatzeko Astigarragako Udalak deitu duen lehiaketaren berri izanik, honako hau

ADIERAZTEN DUT:

1) Zerbitzua orduko prezio honetan egiteko konpromisoa hartzen duda:

Lizitazioako orduko prezio (BEZik gabe)	**Eskaintzen den orduko prezioa (BEZik gabe)**	Baja zifra absolututan	Baja (%)
65,00 euro			

Eskaintza ekonomikoa, BEZik gabe .....EURO dela

Eskaintza hori lizitazio-prezioari dagokionez, BEZik gabe, ...euroko baja dela, hots, % .....

Sinadura

VIII. eranskina: Proposamen-ekonomikoaren eredua (C gutun-azala)

Nik, ... jaunak (helbidea: ....PK:....., NAN: ....., telefono-zenbakia: ....., eta posta elektronikoko helbidea: .....) prozedura osoa Udalari jakinarazteko, nire gaitasun juridikoaren eta jarduteko nire gaitasunaren jabe oso izanik, nire izenean (edo ……. jauna/andrearen PK:……, telefono-zenbakia: ……., eta NAN edo IFK: …….. -bata ala bestea, pertsona fisikoa ala juridikoa izan- ordezkari gisa), **HARREMAN OSASUNTSUAK ETA PAREKIDEAK ERAIKITZEKO, DROGA-MENDEKOTASUNARI ETA INDARKERIA MATXISTARI BEGIRAKO PREBENTZIORAKO SENTSIBILIZAZIO-, FORMAKUNTZA- ETA AHOLKULARITZA ZERBITZUKO <u>5. LOTEA</u> (<u>*kontsumo arduratsua eta droga-mendekotasuna*</u>)** kontratatzeko Astigarragako Udalak deitu duen lehiaketaren berri izanik, honako hau

ADIERAZTEN DUT:

1) Zerbitzua orduko prezio honetan egiteko konpromisoa hartzen duda:

Lizitazioako orduko prezio (BEZik gabe)	**Eskaintzen den orduko prezioa (BEZik gabe)**	Baja zifra absolututan	Baja (%)
65,00 euro			

Eskaintza ekonomikoa, BEZik gabe .....EURO dela

Eskaintza hori lizitazio-prezioari dagokionez, BEZik gabe, ...euroko baja dela, hots, % .....

Sinadura